

MIKRONESIA:

«Elkarketa libreko hitzarmena»,
estatuen independentziarako tresna > 4

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Indar harremana da, ergela

IÑAKI ALTUNA > 11

2023ko martxoaren 25a | XVII. urtea • 818. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik

www.gaur8.info



UMOREA

MIHIA ZORROZTU ALA KAMUSTU?

UMOREA MUGATU EGIN BEHAR DA? ALDIAN-ALDIAN PIZTEN DEN GALDERA DA, NORMALEAN ERANTZUN ABSOLUTURIK EKARTZEN EZ DUENA. LAU UMOREGILE ETA FILOSOFO BATI PARATU DIEGU GALDERA ETA IZAN DIRA GOGOETA PARTEKATU ZENBAIT. UMOREAK KOLORE ETA GAITASUN UGARI DITUELA ULERTUTA, EZ DIRA MUGATZEAREN ALDEKOAK; JENDARTEAREN AZALAREN FINAK EDO LODIAK ESANGO DU NOLA ETA NORAINO. > 12 Aritz LOIOLA | FOKU



4



8



18



«Elkarketa libreko hitzarmena»,
independentziarako bidea
Mikronesian 04

Ikusmira: Irak 07

Naziek lapurtutako artelanak
itzultzeko ikerketa abiatuko du
Kunsthhaus museoak 08

Umoreaz eta haren mugez
hausnarketa serioa 12

«Eta hala ez bazan?», ipuinen bidez
mundu hobe bat eraikitzen 18

Andoni Txintxilla sukaldariari
elkarrizketa 22


Aztarna ekologikoa 25

In fraganti: Julen Alberdi 27

Juantxo Egañaren behatzulotik 31



22



27

SINADURAK:

- 03 **Iñaki Soto:** Indar sortzaileak indar burokratikoaren mende daude
- 10 **Saioa Aginako Lamarain:** Bizipenez eginda gaude
- 11 **Iñaki Altuna:** Indar harremana da, ergela
- 17 **Amaia Ballesteros**
- 20 **Itziar Elizondo:** Kontakizunetik kanpo
- 21 **Xabier Izaga Gonzalez:** Zenbat urte bete ditu aurten euskarak?
- 26 **Miren Azkarate Badiola:** Distopya now
- 26 **Amagoia Mujika Telleria:** Euskainola
- 30 **Olatz Arregi Uriarte:** ChatGPTren tripetan



{ datorrena }

Iñaki SOTO

Indar sortzaileak indar burokratikoen mende daude

Beti izan dut mesfidantza handia burokraziarekin. Zer esanik ez, burokratekin. Argi dago erakundeen garapenean politikak eta proiektuak aurrera ateratzen lagunduko duten tresnak eta egiturak izatea ezinbestekoa dela. Hala ere, gorputz burokratikoak hedatzeko berezko joera dauka eta hori ez da doakoa. Normalean, burokraziak bere funtzioak eta egitura zabaltzen ditu, bere existentzia justifikatzeko lanak sortzen ditu eta, oro har, erakundeen eta komunitateen zati sortzaileena mugatzeko joera du. Burokrazia ordenatresna bat da, espiritu emantzipatzaile edo libertarioa dutenentzat beti deserosoa.

Horregatik, kezkatuta nago burokraziak Euskal Herriko gorputz sozial eta instituzionalean duen hedapenarekin. Honezkero, herrialde honek ezin du paper bat kaxoi batetik bestera mugitu deialdi bati itxaron gabe. Ondoren, formulario bat bete beharko du eta leihatila fisiko edo birtual batean azterketa gaintitu beharko du.

Gainera, erraztasunik ez dago, dena zaila da. Herritarren –edo are eta bezeroen– betekizunak handiak, argiak eta zorrotzak dira. Administrazioarenak –edo haren funtzioaren bat azpikontratatu duten enpresenak– ez daude hain argi, ordea. Maizegi entzuten ditugu «hori ez da nire lana» edo «guk hori ezin dugu egin» aitzakiak.

Kasu askotan, egiturek gastatzen dituzte ekoiztera bideratu beharko lirakeen baliabide gehienak. Zenbait politika publikok enplegu-politika gisa funtzionatzen dute, agian, baina muga asko dituzte kultura, industria edo hezkuntza sustatzeko zituzten jatorrizko helburuak betetzeko. Agian horrela izan behar du, baina komeni da inor ez engainatzea, ezta nork bere burua engainatzea ere. Kontuak ematera ez gaude ohituegiak.

Egunerokotasunean edo administrazioan ez ezik, enpresaren munduan ere burokrazia itogarria izatera iritsi

da. Lege bakoitzak garapen burokratiko berria finkatzen du, sarri enpresa handietarako logikoak diren betebeharrerekin, baina gureak bezalako enpresa askorentzat bide-raezinak diren eskakizunekin. Burokrazian inbertituz betekizun horiek gaintitu daitezke, baina orduan plan horien helburua noraino gauzatzen den eztabaidagarria da. Ez dakit alor honetan gastatzen diren energiez eta sortzen den etsipenaz jakitun ote garen.

Unibertsitatea sistema erreproduzitzeko erakundea den heinean, logikoa da arima burokratiko indartsua izatea. Azkenaldian, graduondoko ikasketak egiten ari den jendearekin egon naiz. Lagunek hainbat irakasgaitan aurkeztu dituzten lanen berri eman didate. Harritu egin nau lan horien interes sozialak. Adibidez, genero arrakalak hezkuntzaren etapetan nola gauzatzen diren

Hainbat alorretan egunero inbertitzen diren energia sortzaileen emaitza soziala txikia dela iruditzen zait. Herri txiki honek ezin du ontzat eman indar sortzaileak indar burokratikoaren mende egotea

edo Txileko ezteandaren ondoren garatu ziren sinboloen eragin politikoa aztertu dute. Ziurrenik, ez dira patentatzeko moduko ikerketak, baina interesgarriak dira eta emankorrak izan zitezkeen. Adibidez, politika publikoak edo estrategiak moldatzeko. Une honetan, ordea, ikasgaiak gaintitzeko funtzio burokratikoak besterik ez dute betetzen. Nire lagunak karrera akademikoan aritzen ez direnez, ikerketa horiek ez dira aldizkari zientifikoetako argitalpen izatera ere iritsiko.

Hainbat alorretan egunero inbertitzen diren energia sortzaileen emaitza soziala oso txikia dela iruditzen zait. Nire ustez, herri txiki honek ezin du ontzat eman indar sortzaileak indar burokratikoaren mende egotea. •

MIKRONESIA, BI ERRALDOIEN ARTEAN

Hondartza txiki bat, arrezifea parean. Marea baxuegi dago urpekaritzan ezer txukunik egiteko, baina behin honaino iritsita, merezi du saiatzea. Hareatzan eraikin zabal bat dago, enbor luzez egina, banua eta lastozko sabaia ditu. Malcolm ikusi dugu etxearen albo batean eserita atarian. Bisitariak gaua bertan emateko aukera dutela diosku, iluntzerakoan euren herrietatik gehiegi urrunduz gero. Bestela, herritarren bilgune zen "gizonen etxea". Badira "emakumeen etxeak" ere. Batean eta bestean, neska-mutilei artisautza, arrantza edo nabigazioa irakasten diete.

Mikronesiako leku askotan daude antzekoak. Elkarrekin topo egin eta eztabaidatzeko txokoak dira, baina Pazifikoko bazter galdu honetan, Yap uhartean, kanpoko elementu bitxi bat izan ohi dute: harri zirkular erraldoiak, diru-trukean erabiliak. Hemendik ia 500 kilometrora dagoen Palau uharteko harrobietan egindako piezak dira, hegazkinik eta ontzi handirik gabeko sasoietan batetik bestera garraiatuak.

II. Mundu Gerran eraitsitako japoniar hegazkin baten hondakinaren aldamenean hasten zen pistatik iritsi gara hondartzaraino. Bidean topatu dugun nekazariari haren lurraldetik igarotzeko baimena eskatu diogu. Eman digu. Harritu gaitu zeinen ondo dakien ingelesez laborariak.

Mundutik bakartua eta gutiz bere buruaren jabe dirudien lurraldea da, eta nortasun bereziko herri, auzune eta baserriak ere elkarrengandik

«Elkarketa libreko hitzarmena»,
Mikronesiako estatuen
independentziarako
tresna

📁 POLITIKA / Urtzi URRUTIKOETXEA

Pazifikoaren erdian, Mikronesiako uharteak daude, hiru estatutan banatuta. Oso txikiak dira, eremu zabal batean sakabanatuta eta biztanle gutxirekin, baina Ameriketako Estatu Batuen eta Txinaren arteko lehiaren erdi-erdian daude. Washingtonek lurralde horiekin daukan akordio berezia aurten amaituko da; horregatik, hitzarmena berritzeko ahalegin diplomatikoei Beijingekiko tentsioak erantsi zaizkie.

independente dira. Baina era berean, munduko ozeano handienaren erdian, gertuko lurraldeetatik ehunka miliatara eta Asia zein Amerika kontinenteak milaka kilometrora dituztela, luzaroan izan dira harremanetan munduko potentzietan.

Mende luzez, mikronesiar kulturatik kanpoko inor gutxi ibili zen bazterrotan: mapa askok Espainia edo Gaztelaren mende jartzen zituzten uharteak, baina Guam irlan baino ez zeukan postu txiki bat Madrilek, Mexikoren eta Filipinen arteko bidean gelditu ahal izateko. XX. mendean, baina, bestelako garrantzia hartu zuten irla txiki hauek; II. Mundu Gerran Japoniaren eta AEBetako armadaren arteko borrokaldira gogorren lekuko izan ziren. Egun, turistek honaino iriste-



ko izan ohi dituzten bi motibo nagusietako bat da gerra hartako hondakinak bisitatzea. Beste motiboa urpekaritza da.

Edozelan ere, gutxi dira hoinaino datozen turistak. Iristeko hain zaila den lekuan, bertako biztanleak ere munduko herrialde handietatik urrun irudikatzen dituzu. Klanaren eta norberaren lurraldeen mugak zehatz ezagutzen dituzte, eliza protestanteekin batera ohitura animista asko bizi dira, Yapen oso ohikoa da gizon zein emakumeak bularra agerian ibiltzea, eta askok gorri koloreko hortzak dituzte, etengabe mamurtu ohi duten areka fruitu estimulagarriak eraginda. Halako hortzeria ageri du gizonen etxean erdi etzanda Malcolmek. Yaperaz egin dio lagunari, baina bideko nekazariak bezala badaki zertxobait ingelesez, Oregonen eta Ameriketako Estatu Batuetako mendebaldean bizi izandako urteen ondorioz. Milaka mikronesiar bizi dira AEBetan, Washingtonekin daukaten hitzarmen bereziari esker. «Lan asko egin eta diru polita irabazten da, eta gustuko dut Amerikan bizitzea, gidatzea... baina hauxe dut nire herria. Hemengo etxea eraikitzen lagundu dit hango esperientziak», diosku areka fruitua eskutan, berriz ere ahoratze prest. Herri askotan, gehiago dira Ameriketako Estatu Batuetan bizi direnak Mikronesian bertan daudenak baino. Ez beti egoera onenean: Hawaii, esaterako, Chuuk irltako gazteei leporatu izan diete behin baino gehiagotan kriminalitatea, eta bazterketa eta xenofobia salatu dute sarritan.

PAZIFIKOAREN KONTROLA

Palau, Mikronesiako Estatu Federatuak eta Marshall Uhar-



teak estatu txiki baina independenteak dira, Nazio Batuen Erakundean aulki propioa eta guzti. Baina AEBekin hitzarmen berezia dute: bertako herritar guztiek AEBetan bizi eta lan egiteko eskubidea daukate, Elkarketa Libreko Akordioari esker. Washingtonek mundu osoan daukan gisa honetako akordio bakarra da, estatubatuar ez diren herritarrek automatikoki lanerako eskubidea baitaukate. Trukean AEBek erdiesten dutena ere garrantzitsua da. Uharteek laguntza ekonomiko garrantzitsua jasotzen dute urtero, eta AEBek zerbitzu sorta bat eskaintzen die uharterei: eguraldiaren iragarpena, hondamendien kudeaketa, aire-zirkulazioaren kontrola edo posta banaketa, esaterako. Era berean, ia lurazalerarik ez baina itsas-eremu erraldoia daukan herrialdearen defentsa AEBetako armadaren esku geratzen da. Marshall uharteetako Kwajalein-eko base militarrean, esaterako, misil balistikoen entrenamendu gunea dauka Washingtonek.

Yapeko biztanleak. Herri askotan, gehiago dira Ameriketako Estatu Batuetan bizi direnak Mikronesian bertan daudenak baino.
Urtzi URRUTIKOETXEA

Gerra Hotzean eskualdeak izan zuen garrantziaren ostean, aldi batez zalantza ere izan zen antzeko akordiorik berrituko ote zen etorkizunean. Txinaren eta Ameriketako Estatu Batuen arteko lehiak, ordea, inoiz baino garrantzitsuago bihurtu du Pazifikokoaren kontrola. Joe Bidenek argi dauka 2023an eta 2024an ahituko diren akordioak berritu behar dituela Palaurekin, Mikronesiarekin eta Marshall Uharteekin, eta horretarako 650 mila milioi dolar aurrekusi ditu hiru herrialdeentzat 20 urteko epean.

II. Mundu Gerraren amaieran, Pazifikoko itsas-eremu zabal bateko uharteak AEBen agindupean utzi zituen Nazio Batuen Erakundeak, eta Washingtonek Pazifikoko Uharten Babespeko Lurraldea (Trust Territory of the Pacific Islands) eratu zuen. Oso hizkuntza eta kultura ezberdineko 100 mila lagun ziren doidoi, milioika kilometro karrikatuko eremuan.

AEBek base militarrik eta beren herri-ereduak eraman


zitu zuten gune garrantzitsuetara, errepedetan hasi eta elikaduraraino, baita entsegu nuklearrak ere: 1958ra arte dozenaka leherketa nuklear egin zituzten Marshall Uharteetako Bikini atoloian, esaterako. 50 eta 60ko hamarkadetakako deskolonizazio-garaian, Washingtonek bere kontrolpean mantendu zituen irlak, harik eta 1979an gobernu autonomoak eratu ziren arte. Palauk ez zuen Mikronesiako Federazioan sartu nahi izan, eta besteek baino beranduago lortu zuten independentzia.

Marshall eta Mikronesian 1991n sartu ziren NBEn, eta 1994an Palau, besteak beste, Washingtonen aurrean jarrera antinuklear argia izan zuelako, arma nuklearrik gabeko herrialde izendatzeko. Aurretik, 80ko hamarkadan, Akordio Libreko adostu eta bozkatu zituzten hiru herrialdeetako herritarrek. 2003an beste 20 urterako berritu zituzten hitzarmenok. Aurten beteko direnez 20 urteok, berritzeko negoziazioetan buru-belarri dihardute.

TENTSIO DIPLOMATIKOAK

Palau eta Marshall Uharteak dira munduan Taiwan aitortzen duten 17 herrialdeetako bi. Lehenaren kasuan, garesti ordaindu du Taipeirekiko leialtasuna: turisten erdiak baino gehiago txinatarrak zirela, Beijingek turismorako debekua ezarri zuen eta kolpe ekonomiko garrantzitsua etorri zen 2018an. Txinak apustu ekonomiko eta diplomatiko handia egin du Ozeanian, eta lorpen garrantzitsuak izan ditu, Kiribati edo Salomon Uharteetan esaterako: Taiwanekiko harremanak eten eta Txinarengana hurbildu dira. Kaledonia Berriko independentzia erreferendumean ere Frantziaren aldeko argumentu unionistetako bat izan da Kanaky independentea Txinaren eraginpean geratuko zela.

Washington ere ez dago geldirik. Salomon Uharteetan enbaxada ireki berri du; 2019an Taiwanekiko harremanak eten eta Beijingekin lotura hasi zuenetik, tentsioak eta istilu larriak izan dira artxipelagoan. Salomon Uharteetako Malaita irlak independentziarako aukera aipatu du, Txinarekiko loturei aurre egiteko (aurtengo otsailean Malaitako presidente Taiwan-zalea kanporatu zuten). Mikronesiako Federazioan, bestalde, Txinari leporatu diote Chuuk-en –federazioko lau estatuetako populatuena– proposamen independentista bultzatzea. Chuukeko gobernuak behin baino gehiagotan deitu du erreferenduma, baina ez du behin ere burutu. Besteak beste, Mikronesian AEBek duten enbaxadoreak mehatxu argia egin zielako: Washingtonek Palau, Mikronesia eta Marshallekin daukan akordioa hiru horiekin baino ez da, eta ez



Yap uhartean, portu bat.
Urtzi URRUTIKOETXEA

dute herrialde berririk onartuko. AEBetan bizi diren chuuktarren egoeraz kezkatuta, bertan behera geratu da galdeketa, baina enbaxadorearen mehatxuaren ifrentzua ere begien bistakoa da: onartuko ote luke Washingtonek besterik gabe Chuuk independentea Txinarengana bihurtzea ala ez ote luke akordioaren bat bilatuko, interes hutsez eta pragmatismoz balitz ere?

Oraingoz agerian geratu da Elkarketa Libreko Akordioa ez zela deskolonizazioa eta Gerra Hotzari lotutako hitzarmen puntuala zela. Washingtonek

Palau, Mikronesiako Estatu Federatuak eta Marshall Uharteak independenteak dira, baina bertako herritar guztiek AEBetan bizi eta lan egiteko eskubidea daukate

Bidenean argi dauka 2023an eta 2024an ahituko diren akordioak berritu behar dituela eta horretarako 650 mila milioi dolar aureikusi ditu hiru herrialdeetarako 20 urteko epean

berebiziko interesa dauka akordioa berritzeko. Are gehiago, Palau eta Marshall Uharteek ez bezala, Mikronesiako Federazioak badauzka Beijingekin harreman diplomatikoak, eta negoziatioetan karta garrantzitsua zaio hori. Izan ere, Marshall Uharteetan misilen kokagunea daukate AEBek eta Palau oso gertu dago Asiatik, Taiwan eta Filipinetatik bereziki, «baina Mikronesiako Estatu Federatuetan ez da inoiz AEBen presentzia militarrik izan. Txinarekin gaur egungo lehia geopolitikoan lotura diplomatikoak izatea abantaila handiagoa ematen diete», dio Giff Johnson Marshall Uharteetako kazetariak. Bai Palauk, bai Marshall Uharteek urtarrean sinatu zuten Kalifornian elkar ulertzeko memoranduma AEBekin; akordio berriaren zirriborroa, alegia. Mikronesiak hilabete geroago onartu zuen negoziatio-markoa: orain arteko 80 milioi dolarren orde, aurre-

rantzean urtero 140 milioi dolar jasotzea adostu dute.

Presidente kargua uztear den David Panuelok herritarrei zerbitzuak hobetzeko balio duela esan du. Parlamentura bidaltako gutunean, presidenteak argi eta garbi Txinarekiko harremanak etetearen alde egiten du: otsailean Taiwango Atzerri ministroarekin batzartu zela aitortu du. «Taiwanek dio Txinak abian dituen proiektu guztiak hartuko dituela», eta horretarako 50 milioi dolar emateko prest dagoela dio Panuelok. Laguntza «Txinatik aldentzeko beharrezko segurtasunarekin letorke, gure subiranotasuna higatzeko eta gure baloreak kaltetzeko gaitasun handia erakutsi baitu, herrialdeko goi-kargudunak bere helburuetarako erabiliz».

Pazifikoko eszenatoki geopolitiko berrian, ustekabeko karta diplomatikoaren jabe dira bertako herri txikiak, munduko bi erraldoien artean negoziatzeko.



Jahmad AL-RUBAYE | AFP

IKUSMIRA

«ALFONBRA MAGIKOTIK» AMESGAIZTORA IRAKEN

'Alfonbra magikoa' izena du Bagdad hiriko erdigunean eraikitako monumentuak. Oihanean lanean diharduen emakumea negarrez ari dela baina begiak malkorik gabe geratu zaizkiola dirudi. Ez da gutxiagorako. Ameriketako Estatu Batuek (AEB) herrialdea inbaditu zutenean, duela bi hamarkada, demokrazia, oparotasuna eta etorkizun handia agindu zieten Saddam Husseinen erregimena pairatzeaz nazka eginda zeuden irakiarrei; batik bat, xiiei eta kurduei. Okupazioak, ordea, miloi erditik gora hildako eta zazpi milioi errefuxiatu eta desplazatu ekarri zituen, baita Irakeko ekonomiak dozenaka urtez atzera egitea ere, besteak beste. Bagdagtarrek diotenez, «lehen lapur handi bakarra genuen; orain iskin guztietan bana dago». Yihadismoak ere gora egin du. AEBei gauzak ere oker suertatu zaizkie; kasu honetan, merezimendu osoz. Milaka hildakoren eta ia bi bilioi dolar xahutu ondoren, Ekialde Hurbiletik hanka egin behar izan dute, atzeko atetik eta gaez, eta beren etsai amorratua, Iran, jaun eta jabe da orain Iraken. Irakiarrek larrutik ordaindu dute Washingtonen errua. Dabid LAZKANOITURBURU

KUNSTHAUS MUSEOA

Naziek lapurtutako artelanak jatorrizko jabeei itzultzeko bidea bultzatu nahi dute

Zuricheko Kunsthauser, Suitzako arte ederretako museorik ospetsuenetakoak, aurreko astean adierazi zenez, bere bildumako zenbait lanen jatorri zalantzagarria argitu nahi du, naziek konfiskatutako ondasun kulturalak izan daitezkeelakoan.

Ann Demeester belgikarrak, urtarrilaz geroztik Kunsthauserko zuzendari lanetan ari denak, Bigarren Mundu Gerran naziek espoliatutako artearen herentziaren auzi arantzatsuari heldu nahi dio horrela. Demeesterrek Frans Hals herbeheretarren lekua hartu zuen museoaren zuzendari-tzan urte berriarekin batera.

Museoak bi urte daramatza Bigarren Mundu Gerran aberastutako Emil Bührle arma saltzailearen bildumaren inguruko polemikarekin, eta orain «nazio mailan nazien jazarpenaren baitan konfiskatutako ondasun kulturalentzako batzorde independente bat ezartzeko ahalegina» babestu nahi du, agiri batean azaldu duenez.

Batzorde hori martxan jarri bitartean, museoaren bildumaren jabe den Zuricheko Arte Ederren Elkarrean «adituen nazioarteko batzorde bat eratu du 2023ko udazkenean» jatorriz zalantzazkoak diren obrei buruzko ikerketa egiteko.

Jatorria bilatzeko estrategia berri honek naziek zuzenean konfiskatutako ondasun kulturalak hartzen ditu kontuan, baita «'hirugarren herrialde seguru' deituetan, nazien eragin eremutik kanpo, adibidez Suitzan, migratutako pertsonen saldutako artelanak» ere.

ARTEA / AFP

Emil Bührle nazien garaiko arma saltzaile alemaniarren arte bildumak sortu duen polemikari erantzunez, Zuricheko Kunsthaus museoak bere artelanen jatorria ikertzeko adituen nazioarteko batzorde bat martxan jarriko duela jakinarazi du. «Museo gisa, erantzukizun sozial handia dugu», ohartarazi du kargua urtarrean hartu zuen Ann Demeester museoeko zuzendari berriak.



«Gure helburu nagusia beti izan behar da gure lanen jatorria modu profesionalean egiaztatzea eta irtenbide justuak eta bidezkoak ahalbidetzea, nazien jazarpenaren baitan konfiskatutako kultura ondasunak izatearen zantzuak daudenean», adierazi du Philipp Hildebrand Zuricheko Arte Ederren Elkarreko presidentek, Suitzako Banku Nazionalako presidente ohia ere badenak.

«Prozesu konplexua eta luzea dela ohartzen gara: lan bakoitzak bere historia du, eta horrek kasu berezi bihurtzen du», adierazi du.

RENOIR, DEGAS, MONET...

Museoak bere bildumaren inguruko ikerketari emango dio lehentasuna, erosketa berriak barne, artelan horien jatorriaren bila. Adibidez, 1945 baino lehen sortutako bildumako obren jatorriari buruzko azterketa sistematikoa egingo du; 1933ko urtarrila eta 1945eko maiatza bitartean jabez aldatu zirenean, batez ere.

«Museo gisa, erantzukizun sozial handia dugu», esan du Ann Demeester zuzendariak, «eta horregatik uste dugu funtsezkoa dela ikuspegi proaktiboa eta ahalik eta gardenena izatea ikerketan». Baina, azpimarratu duenez, «balizko emaitzei erantzuteko modua ikerketa bera bezain garrantzitsua da».

Museoak kritikak jaso zituen 2021ean Bührleren bilduma modu iraunkorrean gordetzeko hegal bat ireki zuenean. Emil Bührle (1890-1956) jatorri alemaniarreko enpresa gizona izan zen, 1937an suitzar nazionalitatea lortu zuena.

Arma saltzaile hark arte bilduma zabala osatu zuen, eta baliteke bertako zenbait lan

juduei espoliatuak edo haien jabeek naziengandik ihesi premiaz salduak izatea. Susmoa dago Hitlerren erregimenak lapurtutako lanen erosle garrantzitsua izan zela.

Buhrle Fundazioak berak baieztatu zuen, adibidez, bildumako 13 koadro Frantziako jatorrizko jabe juduei lapurtutakoak zirela. Bigarren Mundu Gerra ondorengo prozesu judizialen ostean, Buhrlek, 1940ko hamarkadan, 13 obra horiek itzuli zizkien legezko jabeei, eta, ondoren, horietatik bederatzi berrerosi zituen, fundazioaren arabera.

2015era arte, bere bilduma – Manet, Renoir, Degas, Monet, Sisley, Cezanne, Toulouse-Lautrec, Picasso, Braque, Van Gogh eta Gauguinen lanak bilduzen dituen – Zuricheko erakusketa pribatu batean zegoen ikusgai, baina 2008an XIX. mendeko lau artelanen lapurreta sonatu bat izan zen eta horrek bultzatu zuen Suitzako museoa bilduma lekuz aldatzera.

Demeesterrek azpimarratu duenez, «jatorria bilatzea konplexua dela onartu behar da, kasu bakoitza bere aldetik aztertu eta ebaluatu behar baita» akatsik ez egiteko.

Kunsthhaus museoa aspalditik dago justiziaren jopuntuan. 2021ean, adibidez, Miriam Cahn artista garaikide suitzar ospetsuak museo horretan ikusgai zeuden bere lan guztiak erretiratzeko eskatu zuen, tokiko hedabide batean egindako elkarrizketan.

Nazien jazarpenetik ihes egindako juduen alaba da Cahn, 1949an Basilean jaioa, eta salatu zuen museoak ez duela bere historia ordezkatzen. Zehazki, artelanak jatorrian saldu ziren prezio berean erosteko aukera ematea eska-



Alboko orrialdean, emakume bat, museoaren ate paretik igarotzen. Lerro hauen gainean, bisitari bat, Emil Buhrleren bildumako "Ilunabarrean ereiten duena" koadroari begira. Arnd WIEGMANN | AFP

tzen zuen Cahn, horrela benetako jabeen eskuetara itzuli ahal izateko.

ANTZEKO KASUAK

Zurichekoa ez da naziek modu bidegabean bereganatutako artelanekin izandako lehen polemika. 2014an, adibidez, zeresan handia eman zuen Berna (Suitza) eta Bonnekoko (Alemania) museo banatan nazien garaiko arte bildumagile baten seme Cornelius Gurlitt-ek ezkutatutako ehunka artelan erakutsi izanak.

Orduan, Municheko auzitegi batek ebatzi zuen Gurlitt, 2014an hil zena, bere ahalmenen erabilera betean zegoela 1.500 lan inguruko bilduma Bernako Kunstmuseum ospetsuari eman zionean, zeinak konpromisoa hartu baitzuen bildumagile juduei arpilatutako edozein lan itzultzeko. Bildumak 1.500 koadro inguru ditu —Picasso, Matisse, Chagall eta Nolderen lanak, besteak beste—, eta arte merkatuan 1.348 milioi dolar inguru balio lezake.

Cornelius Gurlitt aita Hildebrand Gurlitt izeneko bildumagile alemaniar ezaguna zen, «arte degeneratutzat» hartu izanagatik naziek konfiskatu zituzten margolan horiek lortu zituen. Gurlitt gazteak Municheko bere apartamentuan eta Salzburgo (Austria) etxe batean ezkutatu zuen bilduma.

Aurkikuntzaren ondoren, arpilatutako arteari buruzko lantalde bat osatu zuen Alemaniak, baina bi urte pasatu eta ia bi milioi dolar bideratu ondoren, obren legezko bost jabe baino ez zituen aurkitu. Bernako erakusketari 'Gurlitt dosierra: arte degeneratua, konfiskatua eta saldua' izena jarri zioten; Bonnekoiari 'Gurlitt dosierra: nazien artearen lapurreta eta haren ondorioak'.

Presioa handitzen ari da nazioartean, jabeen balizko oinordekoek naziek atzemandako lanak berreskura ditzaten.

1945 baino lehen sortutako obren jatorriari buruzko azterketa sistematikoa egingo du museoak; 1933ko urtarrila eta 1945eko maiatza bitartean jabez aldatu zirena, batez ere

Kritika aspalditik dator: 2021ean, juduen alaba Miriam Cahn artista garaikide suitzar ospetsuak museo horretan ikusgai zeuden bere lan guztiak erretiratzeko eskatu zuen



Saioa Aginako Lamarain
Psikoterapeuta

Bizipenez eginda gaude

Sarritan aipatu bezala, emozioak gure bizitzaren parte dira; erabakiak hartzeko orduan gidatzen eta bideratzen gaituzte. Zalantzarik gabe emozioen munduak ematen digun “ahalmenetako” bat nostalgia sentsazioa da. Hitza grekotik dator eta etxera itzultzeko mina esan nahi du. Hau da, leku jakin batera itzultzeko gogoak eragindako pairamena azalduko luke. Mendeetan zehar, nostalgia gaixotasun bat zela uste izan da, baina gaur egun badakigu aldaratearen ezaugarri bat besterik ez dela.

Gure oroitzapenak emozioekin lotuta daude eta, gizakiak garenez, horiek nahita berreskuratzeko gaitasuna dugu. Mentalki bidaiatu dezakegu hunkitu gintuen hura berriro bizitzeko. Horrela, nostalgia iragana berpiztu nahi izateari egiten dio erreferentzia, dagoeneko ez dauden une edo egoera batzuetara itzultzeko. Berziki, esperientzia onak eragin zizkiguten edo oroitzapen onak sortzen dizkiguten garai edo lekuengatik sentitzen dugu. Pertsonok eraikitzen gaituzten oroitzapenez, esperientzietan eta bizipenez eginda gaude. Eta denbora gehiengan, pertsonak nostalgia gara. Oroitzapenak gara.

Hala ere, memoria ez da fidagarria, etengabe aldatzen da; beraz, batik batik, funtzioa afektiboa da. Oso gutxitan gogoratzen ditugu gertakariak, pertsonak eta objektuak benetan izan ziren bezala; aitzitik, sentitzen ditugun bezala gogoratzen ditugu. Gure memoria ez da ordenagailuena bezalako, datuak aldatu gabe gordetzen baitituzte. Giza oroimena nahiko moldagarria da. Ekintza soil baten oroitzapenak esanahi berriak har ditzake orainean eta, horregatik, batzuetan keinuak edo hitzak egozten ditu-

gu, agian inoiz gertatu ez direnak, baina eraikitzen dugun oroimen afektibo hori osatzen dutenak. Oroitzapenen berreraikitze horretan eragina dute gure itxaropenek, desioek, estereotipoek eta balio moralek.


Emozio konplexu horrek berekin dakar maila pertsonaleko gertaera garrantzitsu bat kontzienteki gogoratzeko gaitasuna. Gainera, konplexutasuna anibalentea da, ez da emozio positiboa edo negatiboa; poztasuna bezainbat tristura barne hartzen du. Hortaz, emozio gazi-goza dela esan liteke.

Nostalgia agertu egiten da usain, objektu, soinu edo irudi zehatz batekin harremana izaterakoan. Finean, atzokoaren zati bat gogorarazten duen zerbaitekin. Orainaldi konplexu bat bizi duenak, nostalgiaren bidez, ihesbideak aurki ditzake. Hemen, nostalgia kide izatearen sentsazioa eta besteekiko lotura soziala areagotzen laguntzen du. Hori bakardadea-

ren pertzepzioa gainditzeko mekanismo naturala izan liteke. Gainera, zenbait azterlanek erakutsi dute iragane-ko uneak gogoratzeak etorkizunari baikortasunez begiratzen lagundu egiten duela.

Baina batzuetan nostalgia lurrin tristea dakar. Engainatzen gaitu esanez atzoko esperientzia batzuen edertasuna ez dela errepikatuko. Ohikoa da pentsatzea badirela maitasun errepikaezinak, liburu bakarrak eta parajeak beste edozeinekin alderatu ezin daitezkeenak. Baliteke. Hala ere, ziurtzat jotzea ez dugula lehen aldietako zirrara sentituko arriskutsua da. Etxe batean sartu, leihoak itxi eta bizitzara gehiago ez irtetea erabakitzea bezalako da. Sortzen ez badugu ere, milaka pertsona, egoera eta agertoki daude, berritasunaren plazera berriro sentiarazteko ahalmena dutenak. Eguneroko dugu aukera une berri eta ederrak sortzeko. •

saioaaginako@gmail.com



Nostalgian bizitzea beti ez da osasuntsua. GETTY IMAGES

{ asteari zeharka begira } Iñaki ALTUNA

Indar harremana da, ergela

Ekonomia, inozoa» izan zen lehenik ahapeka eta gero bolo-bolo Ameriketako Estatu Batuetan 1992ko hauteskunde kanpainan Bill Clinton hautagaiaren taldeak zabaldu zuen esaldia –«ekonomia da, inozoa» bihurtu zena–, eta orduz geroztik hamaika bertsio izan ditu. Azken boladakoa «inflazioa da, ergela» izan zitekeen, adibide bat jartzearren. James Carvillek, Bill Clintonen hauteskunde-kanpainako estrategak, bota zuen lehenik. Edo, zehatzago esanda, idatzi zuen lehenik. Carvillek kartel bat itsatsi zuen demokraten kanpaina bulego nagusietan. Hiru esaldi jasozten zituen afixa hark, bulego haietan elkartzen ziren guztien buruan iltzatzeko, eta «Ekonomia, inozoa» izan zen esaldi horietako bat, «Aldaketa vs gauza bera» eta «Ez ahaztu osasun sistema» beste biekkin batera. Esan bezala, erabileraren poderioz, irizpide bat markatu nahi zuen barne mailako afixa izatetik lema ez-ofizial gisa zabaltzera pasatu zen, «da» aditza jarritz egindako moldaketarekin, eta orduz geroztik makina bat aldiz erabili izan den formula sortu zuten Clintondarrek.

Zein den gako zehazteko eta argiki ulertarazteko formula da, hain zuzen ere. Une jakin bati edo prozesu historiko bati begiratzeko modu deigarria, eraginkorra, zuzen-zuzena.

Zein da, horrenbestez, gaur egungo gako nagusia? Edo gako nagusietako bat, azterketa pretentziosoegia izan ez dadin. Statu quoari eusteko –askotan atzerapausoak eraginez– edo aldaketa aurrerakoiak –zer esanik ez, iraultzaileak– erdiesteko aldagaia indar harremana dugu, eta azken asteotan nonahi dakuskigu horren adibideak.

Zer da, bada, Estatu frantsesean erretreten erreformarekin gertatzen ari dena? Macronek Parlamentuan eta, are eta askoz ere gehiago, kalean kontraktasuna-

rekin egin du topo. Asaldatuta dabil herri langilea. Norgehiagokan, Macron sistemak eskaintzen dizkion baliabide tranpatienak ere erabiltzen ari da; esaterako, erretreta erreforma dekretuz onartuz, bozen beharrik izan gabe. Frantziako Konstituzioaren 49.3 artikulua famatua. Ozta-ozta bada ere, ondotik etorri den zentsura-mozioa salbatu du Borne lehen ministroak. Bistan denez, Parlamentuan kalean baino indar harreman hobe du Macronek. Hobe, baino ez ona, ezta gutxiagorik ere. Ez du inondik inora bere lehen agintaldian izan zuen nagusitasuna. 2022ko legebiltzarreko hauteskondeek ez zioten Asanblea Nazionalean orain dabilen moduan ibiltzeko emaitzarik eman.

Oraingoan, antza, Macronek erreforma dagoen horretan azken bururaino eramatea lortuko du. Macronismoaren azken "garaipena" izan daiteke, ordea

Indar harremanak ebazten duena modu "zibilizatuan", elkarrizketaren eta akordioaren bidez, edo modu gatazkatsuan kudea daiteke, askotan bi estadio horietatik igaro behar bada ere. Gatazka da oraintxe nagusi Estatu frantsesean, greba deialdietan egiaztatu ahal izan dugunez.

Oraingoan, Errepublikako presidenteak aurrera egin du eta urte amaierarako erreforma indarrean izatea espero du, Konstituzio Kontseiluaren ebazpenaren zain. Beraz, bidea egiteko nahikoa indar harreman zuela pentsatu izan du beti. Protesta mugimenduak erreformari aurre egiteko aski indar pilotuko ote duen oraintxe ezin da jakin, borroka irmoa eta masiboa bada ere. Oraingoan, antza, Macronek erreforma dagoen horretan azken bururaino eramatea lortuko du. Macronismoaren azken "garaipena" izan daiteke, ordea. •

UMOREA, MIHIA ZORROZTU ALA KAMUSTU?

Okurrentzia puntazorrotzak grazia egiten du beti? Mina batzuetan? Kamustu egin behar da?

📁 JENDARTEA / Amagoia Mujika Telleria

Lau umoregile eta filosofo bat, aldian-aldian mahai gainera salto egiten duen pilotaren bueltan: umorea mugatu egin behar da? Erantzun absoluturik ez da sortu, baina bai gogoeta partekatu zenbait. Umoreak askotariko gaitasunak ditu, balio du xaxatzeko, gozatzeko, baita besterik gabe barrea pizteko ere. Umorea mugatzea ez da bidea eta jendartearen azalaren finak edo lodiak esango du nola eta noraino.



LINDANE

ANE LINDANE

«Ez dut ulertzen zergatik umoreak mugak izan behar dituen eta dramak ez»

Sare sozialetan ikusi ohi dugu, egurra banatzen eta jasotzen. Zortzi bat urte daratza bakarriketak egiten. «Egia esan, ez dakit noiz esan daitekeen umoregilea zarela, batzuetan kostatu egiten da. Baina uste dut dagoeneko esan dezakedala».

Bilboko okupazio bulegoan zebilenean hasi zen. «Okupazioak eraman nau umorera. Handik eta hemendik deitzen gintuzten hitzaldiak emateko. Bulegoko abokatuek alde juridikoari buruz hitz egiten zuten eta, nik, alde praktikoari buruz. Konturatu nintzen okupazioari buruzko pasadizoak kontatzeak grazia zuela. Okupatzen ari zarenean, gauza oso bereziak gertatzen zaizkizu. Gertatzen direnean ez daukate graziarik, baina kontatzen dituzunean, bai. Apurka-apurka, konturatu nintzen hor bakarriketa bat egon zitekeela. Nire lehen bakarriketak okupazioari buruzko hitzaldiak ziren. Pasadizo ero horiek kontatzen, konturatu nintzen hor umorea zegoela».

Injustiziak oso modu zuzen eta zorrotzean salatzeke erabilten du umorea. «Finean, konturatzen zara bizitza honetan gertatzen diren gauza asko ikaragarri dramatikoak izan daitezkeela, baina kontatzeko orduan, hain muturrekoak eta absurdoak direnez, grazia daukatela. Gaurkotasun politikoa-ekin edo sozialarekin gauza bera gertatzen da. Adibidez,

Toni Cantok esandako azken txorakeria izugarri dramatikoak izan daiteke, baina gero, kontatzeko orduan, oso barregarria da. Umorea mezu bat helarazteko modu bat da, eta oso modu egokia, gainera. Askotan umorea oso friboloa dela pentsatzen da, eta ideia hori oso hedatuta dago. Baina ez da horrela. Umorea oso gauza serioa da –esaldi nazkagarria–. Dramarekin ez dugu soilik negarra eragin nahi eta komediarekin ez dugu soilik barrea eragin nahi. Azpitik mezu bat egoten da askotan; beti ez, baina askotan bai. Dramarekin ere gauza bera gertatzen da; badaude negarra eragitea beste helbururik ez daukaten dramak. Eta badi-rudi hori zilegiagoa dela barrea eragitea baino».

Umoreak mugak izan behar ditu? Ane Lindanek garbi dauka erantzuna: «Nik uste dut muga guztiak urratzeko daudela, hausteko. Mugak botereak ezartzen ditu eta botereak ezarritako muga horiek denak hautsi egin behar ditugu beti. Nik umorea egiteko orduan eskatzen ditudan mugak drama egiteko orduan eskatzen ditudan muga berak dira. Ez dut ulertzen zergatik umoreak mugak izan behar dituen eta dramak, ez. Badi-rudi barrea eragitea zerbait txarra dela eta, aldiz, negarra eragitea ez. Badi-rudi barrea zerbait friboloa dela, txarto dagoela. Drama egiteko orduan inolako mugarik ez badaukat, zergatik ditut mugak umorea egiteko orduan? Umoreak ez luke mugarik izan

beharko; hain zuzen, umoreak seinalatzen duelako zeintzuk diren dramaren mugak».

UMOREA ETA GAI TABUAK

Umorearen potentzialtasuna aldarrikatzen du Ane Lindane. «Askotan ikusten dugu gai batzuei buruz ezin dela umorerik egin. Drama bai, baina umorea ez. Eta umoreari esker tabuak diren gai askori buruz hitz egin dezakegu. Adibidez, umoreari esker, behin eta berriro oroitarazten dugu Eliza katolikoan sexu abusuak daudela. Umoreagatik ez balitz, tabua askoz handiagoa izango litzateke eta askoz gutxiago hitz egingo genuke drama horri buruz. Zorionez, umorea daukagu drama horren mugak erakusteko. Eliza katolikoan sexu abusuak daude, ez dezagun inoiz hori ahaztu. Hori egiten du umoreak».


Bide beretik, beste adibide bat: «Adibidez, bakarriketan polizia-etxeetan poliziek egin dituzten torturei buruz hitz egiten dut, umoretik. Nik torturak pairatu dituzten lagunak ditut eta pentsatu izan dut noraino hitz egin dezakedan gai horri buruz. Baina nik torturaren gaia ez banu aterako lehen lerrora, jende asko egongo litzateke horri buruz ezer ere jakin gabe. Horretarako dago umorea, gauzak ez ahazteko. Ez dezagun ahaztu errealitate dramatiko hori gertatu dela. Horri buruz barre egiten dugunean torturaren existentzia lehen lerrora ekartzen ari gara, gogoratzen ari gara. Umorea erreminta ikaragarria da horretarako. Askotan gauza batzuei buruz umoretik ez bagenu hitz egingo, ez genituzke aipatuko eta ahaztu egingo lirateke. Umorea horretarako dago, dramaren mugak erakusteko».

JASOTZEN DUEN EGURRAZ

Aipatu bezala, Ane Lindane majo partitzen du egurra sare sozialetan eta jaso, tamaina berean. «Nire eguna horrela hasten da: esnatu, telefonoa hartu eta Facebooken sartzen naiz. 48-50 irain inguru irakurtzen ditut. Gero, Twitterren, beste hainbeste. Eta Instagramen, batere ez, Instagram 'buen rollito'-aren sare soziala delako. Baina bai, egur asko jasotzen dut. Horrekin ere drama handia egiten saiatzen dirak batzuk. Badirudi molestatu egiten dituela nik kritika horiek umorez jasotzeak. Niretzat oso dibertigarria da irain horiek jasotzea; Interneten dauden lau txotxolo dira, ez ditut ezagutzen eta sekulako tontakeriak esaten dituzte. Batzuei, baita hurbileko jendeari ere, ez zaie ondo iruditzen nik eraso horiek ondo hartzea; beldurtuta egon beharko nukeela uste dute. Bai zera! Nik ondo pasatzen dut irainekin».

Horren erakusle, apirilaren 2an Raquel Torresekin Bilboreken eskainiko duen "Despotorroast" emanaldia. «'Roast' bat izango da: irainak jasoko ditugu zuzenean. Horretan datza formatua».

Euskarazko umoregintzak oso une interesgarria bizi dela uste du. «Bidea egiten ari gara, baina Euskal Herrian ez dago stand up-a egiteko tradizio handiegirik. Antton Telleria, Julen Portillo, Maria Blanco, ni neroni... bagaude stand up-a euskaraz egiten dugun umoregile asko. Euskal umoregintzan, hain berria den umoregintza honetan, erreferente edo toki komunak falta handia dugu. Euskaraz, zoritxarrez, ez daukagu toki komunik, mugarririk, umore erreferenterik, eta gu ari gara hori sortzen. Zoritxarrez,



«Umoreari esker tabuak diren gai askori buruz hitz egin dezakegu. Adibidez, behin eta berriro oroitarazten dugu Eliza katolikoan sexu abusuak daudela. Umoreagatik ez balitz, tabua askoz handiagoa izango litzateke»

oraindik autoerreferentzialtasunean erortzen gara eta hortik aldendu behar dugu. Niri askotan gertatzen zait. Euskaraz txisteak egiten ditudanean –batez ere stand up-a ikusteko ohitura ez dagoen tokietan–, batzuetan jendea ez da konturatzen hori txiste bat izan daitekeenik ere. Gero, stand up publikoa izaten ikasi beharra daukagu oraindik. Publiko parte hartzailea izan behar da, barre lasai eta ozen egiten duena. Publikoaren nolabaiteko parte hartzea eskatzen da. Eta oraindik ohitura falta da».

Bidean gauza asko egiteko egoteak abantaila eta desabantailak ditu. «Batetik, guk ezartzen ditugu mugarririk horiek, guk ezartzen ditugu arauak. Baina, aldi berean, bidea irekitzea zaila da, sastraka artean ibili behar duzu eta urratu egiten zara. Hor gabilitza; bide hori egiten ari gara eta oso momentu interesgarrian gaudela uste dut. Beti egon da euskaldunak itxiak eta gatzgabeak garela esaten duen topikoa eta hori ez da egia. Orain stand up-a egiten dugu, beste gai batzuk jorratzen ditugu eta umorea euska-

raz egiten dugu. Oso momentu interesgarria eta aberatsa da».

EMAKUMEA ETA LOTSAGABEA

Ane Lindane emakumea da eta lotsagabea oholtza gainean. Horrek azkura eragiten du. «Emakume umoregile askok jotzen dute gozotasunera. Gozo hitz egiten dute, nahiz eta gauza oso lodiak esan. Baina badirudi emakumeak beti gozo aritu behar duela, atseginak izan behar dugula. Nik ez dut atseginak izan nahi; gainera, ez zait ateratzen horrelakoa izatea. Nik lotsagabea izan nahi dut, oihukatu, hitz itsusiak esan, titiak erakutsi... Finean, hori guztia naiz ni eta ez zait ateratzen beste modu batera egitea. Pertsona askorentzat oso apurtzailea da hori, erabat erotuta geratzen dira ni ikusita. Baina, oro har, ondo hartzen dute eta eskertu egiten dute horrelako emakumeak oholtza gainean ikustea. Baina egia da beste asko –sareetan ikusten da garbi– asko sumintzen direla nire hitz egiteko moduarekin, mugitzeko moduarekin, jorratzen ditudan gaiarekin... Eta sumintzen direnean pentsatzen dut 'ondo ari naiz'».



Umorea eta mugak, aldiro-aldi bueltatzen den eztabaida. «Agian eztabaida antzua, inoiz ez delako erantzunik adosten», bota du Antton Telleriak. Euskal umoregintzak bizi duen goranzko honetan aparretan dago komiko tolosarra. «Mugak bai edo ez eztabaidatu behar, umorean parte hartzen duten osagaiez hitz egin daiteke. Komikoaren ardura hor dago, baina nik uste dut gai guztietan sartzeko aukera izan behar duela. Gaiak hor dauden bitartean, horietan sartu daiteke. Oso mugatzailea iruditzen zait 'honi buruz ezin da umorea egin' esatea, bide berriak eta interesgarriak esploratzeko aukera galtzen ari garelako. Margolari bati ez genioke esango 'hau ezin da margotu'. Gero kontua da, behin eremu horietan sartuta, badakizula gai batzuk oso korapilatsuak direla eta min handia egon daitekeela horien atzean. Niri asko gustatu izan zaidan premisa da: edonora sartu zaitezke, baina ez edonola. Gai batzuek bestelako lan-keta bat eskatzen dute, publikoaren lekuan jartzea... Baina asmoa beti izan da publikoarekin konplizitatea lortzea».

Ignatius Farray umoregile kanariarraren hitzak ekarri ditu Telleriak. Farray filosofoa ere bada. «Berak etengabe esaten du berez komediaren helburua gai ilun eta arantzatsuak hartu eta jarrerak gerturatzen saiatzea dela. Ez da erraza. Eta umorean bada akordio bat, komikoaren eta publikoaren artean, zein kode-tan ari diren adosten duena. Hori zabaltzen denean, gero eta publiko gehiago dago-

nean, ez dakizu kode horiek errespetatuko ote diren. Publikoa barrez ari denean ez dakizu ironikoki ari ote den edo esan duzun astakeria horrekin bat egiten duelako; ez dakizu jarrera batzuk hauspotzen ari ote den komikoa; ez dakizu benetan umorearen ezkutua-ren atzean ezkututzen den faktaxa bat ote den eta benetan pentsatzen duena esaten ari ote den... Oso-oso zaila da».

Baina umoregilearen eta publikoaren artean sortzen den zubi horretan, Telleriak badakizur gustatzen zaion. «Niri gustatu gustatu izan zaizkit zoko ilunetara eta gai arantzatsuetara eraman nauten komikoak, sekulako meritua dutelako. Eremu arantzatsuetara eraman naute, umorea egin

dute hortik eta, aldi berean, lasai sentiarazi naute, badakidalako, adibidez, ez direla fatxak. Publikoa eskutik heldu, jaitsi eskailerak gai ilun horretara, umorea egin eta barrez jartzea lortu. Eta eskailerak igotzen dituzunean sentitzen duzu: 'Honekin barrez ari naiz'. Hori sekulakoa da. Beste gauza bat da komiko batek hori egitea lortzen ez duenean, agian ez dela herriko plazan harrikatu behar».

Ematen du politikoki zuzenaren garai honetan ez dela erraza izango umorea egitea. «Tira, hortaz kexatu zaitezke edo hori hartu eta horrekin jolastu. Nik, adibidez, hurrengo emanaldirako badauzkat ideia batzuk. Adibidez, azentuen kontua. Gaur egun ezin duzu

«Niri gustatu gustatu izan zaizkit zoko ilunetara eta gai arantzatsuetara eraman nauten komikoak. Publikoa eskutik heldu, jaitsi eskailerak gai ilun horretara, umorea egin eta barrez jartzea lortu»

azentu baten inguruko txistirik egin arrazakeria aipatu gabe. Azentu batekin jolas egin dezakezu, baina azalduz badakizula hori arrazista dela. Dauden osagai guztiak sartu behar dira jokoan. Ez du balio, aldiz, 2023an, azentu bat imitatzeak 'zein barregarria den' esanez. Horretan geratzen bazara, esan nahi du ez dituzula ulertu azken urteotako aldaketak eta garapenak. Sartu jokoan, baina joko-arauak ezagututa. Ez du balio esateak 'saiatu naiz txistiek egiten duela hamar urteko eskemekin, baina ez du balio. Gaur egun ezin da umorea egin ezerekin'. Tira, zu ere saiatu adi egoten, gaur egungo kodeak ezagutzen eta horiekin dantza pixka bat egiten».

Izan ere, umoreak sekulako gaitasuna dauka gauzak betikotzeko edo hankaz gora jartzeko. «Umorea egiten duenak prest egon behar du txilinbuelta batzuk egiteko, ez bakarrik publikoa txilinbuelta jartzeko».

AZAL FINA EDO LODIA

Txiste baten aurrean azal fina edo lodia izan, hor ere badago gakoa. Eta azalaren nolakotasuna aldatu egiten da txistearen gaia bat edo bestea izan. «Inplikazioaren kontua ere hor dago. 'Nekatutak' emanaldian garbi ikusi dudana gauza bat izan da, irakasleen gaiarekin adibidez. Oso argigarria izan da publikoaren aurpegiak ikustea. ETari edo Ertzaintzari buruzko txiste batzuekin barrez lehertzen ikusi, baina bat-batean irakasleen gaia atera eta sekulako kopetilunak. Zergatik? Haiek ez direlako ez biktima ez ertzain, baina bai irakasle. Zailena hori da: ukitzen zaituzten gauzeekin barre egitea», iritzi dio Antton Telleriak.



Gorka RUBIO | FOKU

ANTTON TELLERIA

«Oso mugatzailea iruditzen zait 'honi buruz ezin da umorea egin' esatea»

MIRARI MARTIARENA ETA IDOIA TORREGARAI

«Guk topatu ditugu zirrikituak barre egiteko; bi buelta eman behar zaizkio»

Umoreak badi-tu mugak? «Nik esango nuke norabi-deak dituela; goitik behera, behetik gora, paretik parera... egin daiteke umorea», hasi da Idoia Torregarai.

«Nik uste dut ongi ikasi dugula zein diren mugak, batez ere honetan zergatik ari garen kontuan izanda. Umorea eraldaketarako tresna bezala ulertzen dugu, aurrean daukagun horri zerbait mugiarazi nahi diogu. Guk umorea egiteko orduan mugak hausten ditugu; batzuenak, behintzat. Gero badaude hautsi ezin diren beste muga batzuk. Ez da erraza, baina arrakalak sortzen aritzen gara, muga batzuk hausten, garbi jakinda nondik eta nora egin nahi dugun», jarraitu du Mirari Martiarenak.

“Luze edo motz” emanaldian «behetik gorako umorea» egiten dute. «Sistema patriarkalaren kontra ari gara, emakumeei inposatu dizkiguten rola zartzera goaz eta hor haustura batzuk proposatzen ditugu. Baina jendarte jakin batean bizi gara, joko-arau batzuk daude. Ordena horretan garrantzitsua da zu non zauden kokatua. Eta bada-kizu, esaten duzunaren arabera, boterea daukanak zure kontra egin dezakeela; adibidez, telebista saio bat bertan behera utziz, gehiago ez kontratatuz...». Hortik abiatuta, umorea edo zeri buruz egin daiteke? «Bai, baina agian zapaltzailea izango da, iseka egingo dio norbaiti... Gu saiatzen gara genero ikuspuntu horretatik eragiten, mugak hausten», esan du Torregarai.

Umorea gauzak hankaz gora jartzeko daukan gaitasunaz kontziente izanda ere, «ez du zertan beti eraldatzaile izan», zehaztu du Martiarenak. «Ba-

tzuetan barre egitea beste helbururik ez dauka: barre egin eta kito, jolastu, ondo pasatu. Umorea kontu serioa da. Ados, badakigu. Baina beste batzuetan besterik gabe dibertitu egin nahi dugu eta kito».

Beste batzuetan, barre egina-razteaz gain, interpelatu ere egiten du umoregileak. «Atzo bertan gure ikuskizunaren amaieran gizonezko batek esan zigun barre egin zuela gurekin, baina deseroso ere sentitu zela. Zergatik sentitu zara deseroso? Horri buruz hausnartu beharko genuke. Gu ‘Luze edo motz’ emanaldian sexuari buruz aritzen gara oso modu irekian eta toki askotan nabaria da jende askorentzat ez dela eroso bi emakume sexuari buruz hizketan ikustea. Eta pentsatu zenbat gizoni entzun diegun sexuaz hizketan, haien zakilarri buruz, eta zenbat barre egin dugun! Teorian, paperaren gai-

«Sistema patriarkalaren kontra ari gara, emakumeei inposatu dizkiguten rola zartzera goaz eta hor haustura batzuk proposatzen ditugu, umoretik»

nean, gauza bera da, ezta? Baina zeinek esaten duen, desberdina da. Eta emakumeok esaten dugunean, desberdina da oraindik», nabarmendu du Martiarenak.

Emakumeei konkistatu beharreko lur eremua da umorearena, nahiz eta azken urteotan gauzak aldatzen ari diren. «Guk boladak ditugu, garaiak. Gero urte osoan ere lan egiten dugu, baina bereziki azaroaren 25 eta martxoaren 8 inguruan aritzen gara. Ez da kasualitatea. Gu talde feministek, berdintasun arlokoek... kontratatzen gaituzte eta gizonetzkoak kulturatik kontratatzen dituzte. Jendeak esango du ‘hauek beti matraka berarekin’. Baina errealitatea hori da».

Torregarai jarraitu du hari beretik. «Guk bost urtean hiruhun plaza baino gehiago egin ditugu. Baina kontsideratzen gaituzte bakarrik? Umoregile? Bakarriketalarik katego-

ria ematen digute? Prestigioa ez da bera gizona edo emakumea izan».

POLITIKOKI ZUZENAREN KULTURA

Politikoki zuzenaren garaian umorea fin jostea ez da lan makala. «Politikoki zuzenaren ‘kultura’ hori sortu da, finean, norbait babesteko beharra egon delako. Ez da gauza bera Mirari eta biok bakarrik gaudenean, egurra partitzen honi eta hari. Testuinguru horretan politikoki ez zuzenak izateko askatasuna daukagu. Eta beste bat da jendaurrean ari garenean. Norabi-deen kontua sartzen da hor: zeinez ari zara barrez? Norbait ez ari zara? Zertarako? Rolak betikotzeko edo zartzatzeko? Batzuek esaten dute ‘gaur egun ezin da ezeri buruz barre egin’. Tira, guk topatu ditugu zirrikituak barre egiteko; igual beste buelta bat eman behar zaio umoreari. Urte luzez kontatu dira emakumeei buruzko txisteak, goitik behera, eta gaur egun ez digute graziarik egiten. Egon badaude moduak umorea egiteko, umoregileak topatu behar ditu umorea egiteko beste borroka batzuk, beste jolas batzuk... Beharbada bi buelta eman behar zaizkio», esan du Torregarai.

«Garai batean funtzionatu zuenak akaso gaur egun ez du funtzionatzen, jendarte aldatu delako, baita gure pentsatzeko modua ere. Aldatu egin behar da umorea egiteko modua. Batzuek betikoan jarraituko dute, sinpletasun horretan, errazari barre egiten... eta ni horrek nekatu egiten nau. Aitortzen dut mota horretako umorearekin barre egin izan dudala, baina hori bakarrik zegoelako. Baina ni ahalduntzen, aldatzen, gartzten, joan naizen neurrian, grazia galdu du».



MADDI NAZABAL ETXEBESTE

«Ez naiz umorea mugatzearen aldekoa; jendarteak berak mugatuko du»

Filosofiako gradu amaierako lanean umorearen mugei buruz hausnartu zuen Maddi Nazabal Etxebestek (Oartzun, 1995).

Bere ustez, lehendabizi, umorea zer den eta zer ez definitu beharra dago. «Hainbat teoria daude. Bada teoria bat esaten duena umorea egiten dugun guztietan besteak baino gehiago garelako erakusten ari garela. Nagusitasunaren teoria da hori: zuk umorea egiten duzun aldiro beste bat gutxiesten ari zara. Beste teoria batek dio umoreak balio duela beti gure burua askatzeko, barne korapiloak askatzeko. Beste teoria baten arabera, jolasa bezalakoa da, ez dauka beste inongo inplikaziorik. Teoria horien alde onak eta txarrak bereizten saiatu nintzen ni neure lanean. Eta nire ustez, teoria oso ona izan zen inkongruentziarena. Umorean beti pauta bat errepikatzen da: inkongruentzia den zerbait errepikatzen da. Txiste bat entzuten ari zarela, zerbaiten esperoan zaude, eta beti gertatzen da haustura bat, espero duzun horretatik aparteko zerbait, eta horrek egiten du grazia. Horrek pizten du zerbait», dio Nazabalek.

Inkongruentzia umorea da. Umoreak entretenimendu komikoa sortzen du eta horrek barrea eragin dezake, edo ez. Hori da prozesua, oiartzuarren ustez.

Eta bada, Nazabalen ustez, beste oinarri garrantzitsu bat: umorea fikzioa da. «Hori oinarritzkoa da, eztabaida asko sortzen baitira umorea fikzio modura hartzen ez denean. Fikzioa den neurrian, umoregile baten aurrean zaudenean kode batzuk, lizentzia batzuk, onartzen dizkiozu. ‘Ados, une

honetan umoregilea zara pertsonaren aurretik eta umorea egin dezakezu’. Lizentzia batzuk onartzen dizkiozu. Finen, joko hitzartu bat. Jolastera goaz, hauek dira arauak, fikzio batean mugitzera goaz».

Baina, noski, arauak aldatu egiten dira jendartearekin batera. «Testuinguruak garrantzi handia dauka. Umoreak umore izaera, fikzio izaera dauka testuinguru baten baitan. Testuinguru edo arau horietan sartzen da zein den umoregilea, zein publikoa, non eta noiz ari den. Baldintza horietako

bat haustea nahikoa da umoreak umore izateari uzteko eta eztabaida, lintermendua edo liskarra sortzeko. Hori sare sozialetan argi eta garbi ikusten da: umoregile baten ateraldia testuingurutik atera eta Twitteren jartzen baduzu ‘honek hau esan du’, akabo umoregilea eta akabo umorea».

«GAKO EZ DAGO NORABIDEAN»

Nazabalen ustez, umorearen mugen inguruko eztabaida ez dago norabidean. «Niretzat gako ez dago norabidean. Norabidean egon daiteke, testuin-

guru ez badago garbi. Baina norabidean badago indarra, baieztatzen ari gara umorean beti bat bestearen ginetik jartzen dela. Umorea norabidera mugatzen badugu, umore asko geratzen da kanpoan. Askotan zeu zara umoregilea eta umorearen helmuga; zeure buruaz barre egiten duzunean, kasu. Niretzat norabidean baino gehiago testuinguruan dago gako. Eta fikzioa dela garbi izanda. Baldintza horiek oso garbi badaude, kasik dena da zilegi».

Orduan, zapaldutakoen gainean egiten den umorea umorea da? «Zapaltzaileak zapalduaren gainean egiten duenean, hori umorea egitea da. Sistematikoki egiten denean, zapalkuntzarako tresna bihurtzen denean, beti azpian dagoena zapaltzeko erabiltzen

denean, progagandarako tresna izan daiteke. Adibidez, emakumeen inguruan egin den umorea latza izan da eta sistema oso bat mantentzen lagundu du. Nik ulertzen dut umorea, kasu horretan, makinaria baten parte izan dela eta gaur egun ere badela. Baina duela 25 urte egiten zena gaur ezin da egin, eta horrela behar du. Jendarte bezala garapen bat egon da eta horrelako gauzetan ikusten da. Dagoeneko gauza batzuek ez dute grazia-rik egiten».

2016an “La Sexta” telebista katean elkarrizketa egin zioten Millan Salcedo umoregileari. 1990eko hamarkadako esketx bat izan zuten mintzagai. «Salcedo ateratzen zen, jipoitutako emakume baten pertsonaiaren azalean, eta gauza bakarra esaten zuen: ‘Mi marido me pega’. Eta sumatzen da publikoa barrez lehertzen. Millan Salcedok berak, hogeita hamar urte geroago, esaten du arazoa dela garai hartan horrek grazia egiten zuela. ‘Ni damutuko naiz, barkamena eskatuko dut, baina ez da nire arazoa bakarrik. Esketx hori telebistan zegoen, telebistako agintari guztiek onartzen zuten eta publikoari sekulako grazia egiten zion. Hori da problema’, esan zuen umoregileak».

Nazabalen ustez, umoregilearen kodeak eta hartzailearenak sartzen dira jokoan. Bat egin behar dute. «Publiko kritikoki batek umore immoral, zapaltzailea, baztertu egingo du». Hortik abiatuta, testuinguru garbi badago, Nazabal ez da umorea mugatzearen aldekoa. «Jendarteak berak mugatuko duela uste dut. Mugatzekotan, noiz? Jendarte batek esaten duenean ‘nahikoa da, honek ez digu grazia-rik egiten’».



Gorka RUBIO | FOKU

«Umorea fikzioa da. Eta fikzioa den neurrian, umoregile baten aurrean zaudenean kode batzuk, lizentzia batzuk, onartzen dizkiozu. ‘Ados, une honetan umoregilea zara pertsonaren aurretik eta umorea egin dezakezu’. Lizentzia batzuk onartzen dizkiozu»

ETA HALA EZ BAZAN?

Ipuinen bitartez mundua eraiki eta deseraiki egin daiteke

Txanogorritxuk egunero zeharkatzen du basoa amonaren etxera iristeko. Dagoeneko ondo ezagutzen ditu nire estrategia guztiak eta badaki engainatzen saiatuko naizela. Baina zuek nire lagunak zarete», has ten da ipuina osatzen otsoa, publikoaren konplizitatea topatu nahian. “Eta hala ez bazan” ekimena gizarte esperimendu moduko bat da, haur literaturan txertatuta dauden estereotipoak deseraikitze ariketa bat.

Parean Elkartek haur literaturaren nolokotasunaz haus-

📁 **JENDARTEA** / Garazi CASTAÑO - Amagoia MUJKA

Haurrentzako ipuin eta istorio tradizionaleri buruz genero perspektibatik gogoeta egiteko antzerkia baliatu du Parean Elkartek Irungo Txingudi ikastolako ikasleekin eta esperientziaren bideoa sareratu egin dute. Haur literaturaren orrialdeetan ezkututzen diren estereotipo matxistak bistaratu eta hankaz gora jartzeko euskarazko tresna bat sortu nahi dute.

nartzeko baliabideak sortu nahi izan ditu, eta modu berezian egin du. Irungo Txingudi ikastolako BHIko ikasleekin, zuzendaritzarekin eta irakasleekin, Patata Tropikala antzer-

ki laborategiko antzezleekin eta Bira Produzioak kooperatibarekin elkarlanean, esperientzia berezi bat sortu du.

“Eta hala ez bazan?” esperimendu baten emaitza bisuala

da, kontzientziak pizteko euskaraz sortutako ikus-entzunezko euskarria. “*Cambia el Cuento*” proiektu katalana izan dute inspirazio iturri. Proiektuak betiko istorio edo ipuinen eragina frogatzea eta ikusaraztea du helburu, antzerki parte-hartzailearen bitartez.

Irungo Txingudi ikastolaren kasuan, Txanogorritxuren ipuina hartu dute oinarri. Parean elkartek sareratutako bideoan eskolan egindako ariketa sozialaren emaitza ikus daiteke. Ikasleak oholtza gaine-

ra igotzen dira eta bertan dauden eserlekuetan eseri. Ikusle baino gehiago, datorrenaren parte-hartzaile bihurtzen dira. Txanogorritxu agertuko zaie lehenik; ostean, otsoa. Piztiak konplizitatea bilatuko du ikasleengan, Txanogorritxu bere eskuetan jautzeko laguntza eskatuz. Ipuin klasikoak, baina, “*plot twist*” bat izango du batbatean. Bi aktoreek ipuinak ezkututzen dituen estereotipoen inguruan galdegingo diete aulkietan eserita dauden nerabeei. Bideoan agertzen ez den arren, ikasleek elkarrekin hausnartzeko tartea izan zuten antzerkiaren ostean.

Miren Lanz elkarteko kideak azaldu duenez, «antzerki forma da metodologia. Zuzenean egiten da ikusleen aurrean. Ikusleak eszenatokian bertan daude, presentzia daukate. Ikusteko modua desberdina da; ikasleak parte sentitzen dira eta antzezleek interpelatu egiten dituzte hausnarketarako galdera batzuk proposatuz. Txanogorritxuren kasuan, oharkabean pasatzen diren zenbat balore transmititzen ditugun bistaratu nahi genuen. Fokua sexu indarkeriaren gainean dago jarria. Bideoan nahiko ondo ikusten da oharkabean zenbat mezu jasotzen ditugun. Ikasleek aitortzen dute inoiz ez zirela horrekin konurtatu».

Irungo Txingudi ikastolako lehen esperientziak hausnarketarako bide ugari zabaldu ditu. «Parte hartu duten neska guztiek inoiz beldurra sentitu dutela aitortu izana izan da guretzat gogorrena. Mutilek, ez. Une intentsoak eta gogorrak izan dira, bai haientzat bai guretzat».

Parean Elkartekoek positibotzat jo dute esperientzia. Hurrengo urratsik erabaki ez du-





ten arren, interesgarria iruditzen zaie «bide honetan jarraitzea eta euskaraz horrelako formatuko bitartekoak sortzea». Lehen saiakeraren ostean, aitor-tu dute halako egitasmoek eskatzen duten denbora, kostu eta esfortzuari neurria hartu ahal izan diotela. Ekimena «modu duin batean» errepikatze-ko formulak bilatu beharko lituzketela onartuta ere, ez dute baztertzen aurrera egitea.

«Gure asmoa bazen horrelako formatu bat eskaintzea, modu duinean eta dohain. Guk ere askotan jo dugu horrelako bitartekoen bila komunitatean lan egiteko. Eredu praktikoak eta eraginkorrak dira. Euskarazko materialaren gabezia handia dago. Zabaltzea eta interesa duen edonork erabiltzea da gure asmoa».

ZER DAUKATE ESKURA HAURREK?

Parean Elkartea 2015ean sortu zuten Miren Lanz, Oihana Llo-

Alboko orrialdean,
Parean Elkarteko kideak
Txingudi Ikastolan.
Lerro hauen gainean,
antzerki forumean
jasotako zenbait une.
PAREAN ELKARTEA

rente eta Ainara Lopezek, «modu naturalean». Lanzen hitzetan, «gaztetatik aritu gara militantzia feministan, eta apustua egin genuen horri modu profesionalean segida emateko». Genero berdintasunaren inguruko proiektuetan aritzen dira, adineko pertso- nei eta migratutako pertso- nei atentzio berezia jarrita.

«Eta hala ez bazan?» proiektuaren ernamuina Asun Casasola ipuin lehiaketan topa dai-teke. «Ipuin lehiaketa horren funtsa indarkeria egoerak bis-

taratzea eta horien inguruan sentsibilizatzea da. Literatu- ran, noraino hausnartzen da generoaren gaia?», azaldu du Lanzek.

Hari horri tiraka Irungo Eguzkiza eskolako liburutegia aztertu zuten Parean Elkar- tekoek. «Adierazle batzuk ezarri genituen eta liburutegiaren %10eko lagin bat aztertu ge- nuen; zein den idazlearen ge- neroa, ilustratzailearena, per- tsonaia nagusien generoa, zaintza nola irudikatzen den, estereotipoek zein toki dauka- ten, familia egoerak... Iaz Oiar- tzungo udal liburutegian egin genuen ariketa bera eta ondo- rioak argigarriak izan ziren ba- tean eta bestean: protagonista gehienak gizonezkoak dira eta erreproduzitzen diren rolak eta estereotipoak desegokiak dira kasu gehienetan».

Azken hamarkadan haur li- teraturan sortu diren ekoiz- pen berrietan garapen bat

ikusten den arren, «guk haur batek eskura zer daukan az- tertu dugu, bere herriko libu- rutegian edo eskolakoan. Edi- zio zaharrei buruz ari gara, ipuin klasikoez... Betaurreko moreak jantzi behar ditugula esaten da eta hemen ere jarri behar da fokua. Ipuinak oso tresna garrantzitsua dira eta atentzioa beharko lukete. Be- reziki haurtzaroan garrantzi handia daukate. Haurrei mundua erakusten diegu ipuinen bitartez, bai barneko mundua bai kanpokoa. Eta hor, oharkabean, urtebetean kontatu dizkiogun ipuin guz- tietan mutilak badira prota- gonistak, zer ari gara trans- mititzen?», egin du gogoeta Lanzek. «Ez dugu esaten mu- til protagonistak dituzten ipuin guztiak erre behar ditu- gunik, baina oreka bat bila- tzeko saiakera egin behar da. Begirada kritikoagoa izan beharko genuke», jarraitu du.

«Antzerki foruma da formatua. Ikusteko modua desberdina da; ikasleak parte sentitzen dira eta antzezleek interpelatu egiten dituzte hausnarketarako galdera batzuk proposatuz»

Txingudi ikastolako ikasleekin Txanogorritxuren ipuina landu dute antzerkiaren bidez eta sexu indarkeriaren gainean jarri dute fokua



Itziar Elizondo
Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

Kontakizunetik kanpo

Adinekook urte dezente daramatzagu emakumeen biografiak eta haien jakintzak deskubritzen, eskolako urteetan haien ezagutza ukatu baitziguten. Beraz, galdutako denbora berreskuratu behar dugu, eta, zorionez, asko eta asko dira, ukatu zaigun historia indibidual eta kolektiboaren hutsune hori betetzeko, haiei buruz argitaratzen diren nobedade editorialak.

Berriki Marga Sánchez Romero irakasleak kaleratutako "Prehistoria de Mujeres" (Destino, 2022) liburuan argi gertatzen da, beste behin ere, idazketaren aurreko garai urruneko emakumeei buruz transmititu zaigun ikuspegi estereotipatua. Arkeologiak, hasiera-hasieratik, bere kontakizunetik kanporatu gintuen inolako irizpide zientifikorik gabe. Horren helburua zen gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak jatorrizkoak eta saihetsezinak zirela arrazoitzea, eta haiek gizarte gisa garenaren parte zirela. Diziplinari

edukia eman zioten lehen arkeologoak, garaiko zientzia guztietan bezala, elite intelektual eta ekonomikoetako gizon europarrak ziren. Zehazki, XIX. mendean zehar ematen ari ziren aldaketa sozial, politiko, ideologiko eta ekonomikoek kezkatu eta interpelatu zituzten gizonak. Hala nola, mendearen bigarren erdian, sufragisten aldarrikapenak, eta horrek talka egin zuen une horretan ezarritako boterearen interesekin. Testuinguru horretan, iraganeko gizarteei buruzko diskurtsoek, bereziki historiaurrekoek, emakumeei eskubideak ukatzen lagundu zuten. Eta narratiba horrek gaur arte dirau. Ikusi besterik ez dago nola azaltzen diren gizon eta emakumeak museo arkeologikoetan.

DNari esker, ostera, badakigu gaur egun Europa erdialdeko Brontze Aroan, armak dituzten hilobien %20-30 emakumeenak direla, guduetan aritutakoenak, burezurreko traumatismoak eta beren burua defendatzeko egindako zauriak

dituztelako. Nolanahi ere, Sánchez Romerok dioenez, «ADNa eta gainontzeko teknologia guztiak gorabehera, galdera desberdinak egin beharko ditugu diskurtso historikoa aldatzeko. Zientzian, garrantzitsuena galderak dira, iraganeko gizarteari buruz galdetzen duguna».

Bestalde, arkeologia feminista iritsi arte zaintza-lanek izan duten irakurketa miope eta murriztailea salatu du egileak. Munduko gizarte guztietan ematen den zeharkako eta egiturazko jarduera bakarra da, ezin baita bizi elikatu, zaindu, gizarteratu, hezi eta sendatu gabe. «Hori historiatik atera dugu, garrantzitsua izan ez dadin. Azalpen historikoaren erdigunean jarri eta ulertarazi behar dugu jarduer horiek ezagutza handia eskatzen dutela eta ongizate orokorra sortu bai zaintzailentzat bai zaintzak jasotzen dituztenentzat, gizon zein emakumeentzat». •



Historiaren eta Historiaurrearen kontakizunean apenas agertzen den emakumerik. GETTY IMAGES

{ koaderno } **Xabier IZAGA GONZALEZ**

Zenbat urte bete ditu aurten euskara batuak?

Oso *h*-zalea izan naiz. Gogoan dut 80ko hamarraldiaren hasieran *onhartu*, *erahil*, *oinharri* idazten nuela, eta ez dakit noiz, zer egunetan aldatu nuen joera hura, letra horren erabileraren inguruko zerbait irakurrita, nonbait. Ondorengo hamarraldian harrituta irakurri nuen Euskaltzaindiak argitaratu zuen arau sorta, uste bainuen haietako asko aspalditik zeudela indarrean. Euskara irakasleek oraindik entzungo dute, idazlanak zuzendutakoan, aspaldiko matraka: «Horrela idatzi behar da orain? Egunerok aldatzen dituzte arauak». Baina Euskaltzaindiak ez du ezer aldatu; arautzat jotzen genituen asko aztertu edo behinik behin onartu gabe zeuden artean.

Atzo Erreterria eta Donostia arteko giza kate egin zuten euskara batua omentzeko, baita hura sustatu zuten 15 lagun ere. Haien artean, Koldo Mitxelena eta Jose Luis Alvarez Enparanza *Txillardeg*i. Bion inguruko artikulu bat idatzi du asteon Fito Rodriguezek eta hartan dioenez, argi dago «euskal kulturaren ardatz bihurtutako euskara batuaren sorreran batera aritu zirela eta, hala ere, bion gizarte errekonozimendua zeharo asimetrikoa dela egun». Hala dirudi, bai.

1968an Arantzazun egin zen bilera jotzen da batuaren sorreratzat. Hura Euskaltzaindiak euskara batuaren eredu babestu zuen bilera izan zen; hala ere, eredu hura bidea egiten hasia zen orduko. Gabriel Arestik euskara batuan idazten zuen («Maldan behe-*ra*», 1959) euskara batua «*sortu*» baino lehenago; Koldo Mitxelenak argiro esan zuenez, Arantzazun ez zen «inor deus asmatzen ari; euskal literaturan indarrez ongi hornitua ageri zen joera bati ematen zitzaion amore». Eta joera hura Arantzazuko onarpeneraino iritsi izana batik bat Txillardegiri zor zaio. Ez nik diodalako, Mitxelenak berak esanda baizik: 1963 eta

1964an Txillardegik Baionan bultzatu zituen Euskal Idazkaritzaren bilerak, hango proposamenak eta hartutako konpromisoak izan ez balira, nekez bideratuko zatekeela euskararen batasunaren auzia. Eta bat nator Fito Rodriguezekin, Mitxelenari meritu batere kendu gabe, jakina. 1957. urtetik euskaltzain urgazle, eta Euskaltzaindia batasunaren bidari eusteko premiatzeaz aspertuta, Txillardegik dimisioa aurkeztu zuen akademian eta ez zioten onartu. Hala ere, lanari ekin zion. Eta ondo zekien zertan ari zen: hizkuntza nazionala diseinatzen, mugaz gainekoa.

Hain zuzen ere, Arantzazun oso esanguratsua izan zen *h*-aren inguruko eztabaida, hizkuntzaren arloa gainditzen zuena eta aldeko eta aurkako amorratuak elkarri buru emanda zituena. Erabakigarria izan zen

Euskaltzaindia batasunaren bidari eusteko premiatzeaz aspertuta, Txillardegik lanari ekin zion. Eta ondo zekien zertan ari zen: hizkuntza nazionala diseinatzen, mugaz gainekoa

gertakari bat zenbait jarrera aldatzeko, edo hausnarketak zabaltzeko. Pierre Laffitek esan zuen Ipar Euskal Herrian *h*-a erabiltzen jarraituko zutela, baina Hego-koei eskatu zien baztertu zezatela letra hori, zalapartak saihesteko, «azken batean euskara biziko bada, hemen [Hego Euskal Herrian] biziko da, zeren eta beste aldean ez baitu etorkizunik».

Ezinbestekoa zen euskara estandarra hizkuntza normalizatzeko. «Normala» izan zedin, alegia. Frantsesa edo gaztelania bezala. Frantses eta espainol askok euren ondarea izatea onartzen dute, baina ez dakit ideia ona iruditzen zaien euskara normalizatzea, berena bezalako hizkuntza normala izatea, alegia. •

Arrantzak, nekazaritzak eta abeltzaintzak bat egiten duten lurralde a m e s t u a n hartu gaitu Andoni Txintxillak (Zumaia, 1978). Bere jaioterrian, mendialdean, Artadin.

Bertara iritsi eta eliza, frontoia eta elkarte gastronomikoak osatutako triangeluaren babesean egin du bere txokoa sukaldariak. «Niretzat tenplua bezalakoa da. Garbi nuen toki hau nahi nuela, utzita zegoen. Intuizioak ekarri ninduen eta neure ametsa hemen egin nahi dut», esan du. Berea bezalako proiektuetan kokapenak garrantzi handia duela nabarmendu du. «Kontzeptu hau

herri edo hiri batean ez zen gauza bera izango. Itsasoari begira gaude, Artadin. Eta guk artearekin egiten dugu lan; bai ikatza bai egurra.... Landaredia 'silvestre' polita daukagu bertan eta berreskuratze lanak egiten ari gara. Niretzat magia handia dauka leku honek».

«Apezpikutzarenak dira jate-txea eta baratzea; laborategiaren aldea, berriz, pribatua da. Bizitza osorako alokairua daukagu», azaldu du, arnas luzeko bidea izan nahi duenaren erakusle. «Auzoari bizitza berria ematea ere bada gure asmoa».

Sukaldaritzza sustraiei, herriari, lotuta ulertzen du. «Asko hitz egiten da 0 kilometroaz, baina nik nahiago dut 'slow' sukaldaritzaz jardun.

Izan ere, su geldoak elementu ugari batzen ditu: kultura, hizkuntza...», adierazi du.

Garai bateko eraikinarekin soka ez du eten nahi. Karmengo Amak egiten dio ongietorria bisitariari jangelan, harrizko paretan. «Ez da ni fededuna naizelako, baina itsasoarekin dugun harremana estua izanik...», argitu du.

SARIA JASO BERRI

Duela gutxi irabazi duen garaikurra ere –Guía Repsolek banatzen duen Eguzkia– ikus daiteke pixka bat harago. «Egindako lanaren ondorioa da. Indarra ematen dizu, dudarik gabe; batez ere, guk bezala, hain denbora gutxi daramazuean», esan du.

«Gauza asko egin dira egiteagatik, modagatik edo dirua azkar irabazteagatik. Dudarik gabe, bideragarritasun ekonomikoa beharrezkoa da eta zailagoa da hori lortzea, ez baitut bide komertziala jarraitzen. Nik, pertsona bezala eta sukaldari bezala, beste filosofia bat, beste balore batzuk ditut»

Batetik, tokia mapan jartzeko eta bestetik zabaldu nahi den mezuaren bozgorailu lana egiteko balio izaten dute sariak. «Ikusita naturak eta, batik bat, itsasoak zein egoera duen, polita da gure printzipioak jendeak ezagutzea eta oihartzuna izatea», aitortu du.

Txintxillak garbi dio: «Horrelako jatetxerik ez dago, onerako zein txarrerako. Garrantzitsua da zure esentzia gordeta bidea jorratzea. Tendentziek ez naute betetzen. Indarrak eta barruko harrak, bai, pizten naute», adierazi du.

«Gauza asko egin dira egiteagatik, modagatik edo dirua azkar irabazteagatik. Dudarik gabe bideragarritasun ekonomikoa beharrezkoa da eta zailagoa da hori lortzea, ez baitut bide komertziala jarraitzen. Nik, pertsona bezala eta sukaldari bezala, beste filosofia bat, beste balore batzuk ditut».

ESKARMENTUA

Hamar urtez Zumaiaiko Jubila-tuen Etxeko sukaldean izan zuen eskola. Pausoz pauso doa. «Beharrezkoa da aurretik eskarmentu pixka bat izatea, ametsak ez dira goizetik gaue-ra eraikitzen», esan du.

Bertako sukaldearen kargu egin ostean –«adinekoak bakarrik ez, gazteak ere bertara sartzea izan zen gure helburua»–, Ikerkuntza+Garapena eta tradizioa uztartzen dituen proiektu berritzailea abiarazi zuen duela urtebete. Jatetxea, laborategia, baratzea, piszifaktoria –laster jarriko dute martxan... ekosistema osoa garatu du Txintxillak.

Euskal Herriko jatetxeetako sukaldeetan ezohikoak diren irudiak ditugu zain. Egurrezko beheko sua eta labea, eta arrain-buruak zintzilik, parillaren goialdean. «Uste dugu



«Ez da erraza hamarratza bezala atzera joatea eta, gainera, korrontearen aurka aritzea»

gure kostaldean hiru arrain espezie bakarrik ditugula eta ez da horrela. Garai bateko ondarea ez badugu berreskuratzen galdu egingo da».

Botarga ere prestatzen du. «Mediterraneoko sukaldaritzako plater tipikoa da, arrain batzuen arraba gazi eta lehorrez egina». Japoniako *karasumi*, Taiwaneko *wuyutsu* eta Koreako *eoran* gisako errezetak dira. «Sardinian oso komertziala da, 600 euro inguru balio ditu kiloak eta Japonian, 800 euro. Guk beste modu batean prestatzen dugu. Lan oso polita da era honetako produktuekin aritzea, nahiz eta ez den erraza, gure dastamenmemoria ez baitago ohituta zapore horiekin», kontatu du.

Produktua zaintzea du helburu. «Sua, egurra eta ikatza edukita, ez da beste askorik behar. Hiruzpalau osagai nahikoak dira, ahal den gutxien manipulaturakoak. Ez dago misterio handirik. Naturarekiko errespetua; itsasoarekikoa eta lurrarekikoa, batik bat», laburbildu du bere filosofia.

«LAZUNEI HITZ EGITEN ZIEN...»

Sukaldaritzaren kontzeptuala da berea. «Baina ez nik nahi nukeen beste, bestela bakarrik geratuko nintzateke eta. Norbaitek esango du, bestela, 'korrokoiei xuxurlatzen zien gizona'... Nire buruaz ere barre egiten dut tarteka», bota du.

Jatetxearen izena esanguratsua da, karramarroa. «Hamarratza atzeraka ibiltzen da. Gu ere tradizioari atzera begira gaudenez, horregatik aukeratu nuen izena», azaldu du.

Sinetsita ari da, baina horrek ez du esan nahi zailtasunei aurre egin beharrik ez dienik. «Ez da erraza hamarratza bezala atzera joatea eta, gainera, korrontearen aurka aritzea. Bide

komertziala hartzea da errazena, baina ni ez nau horrek betetzen», aitortu du.

Bezero bat baino gehiago begiak zabal-zabalik geratuko da kartan lazuna ikusita. «Lazunaz ez daukagu ideiarik. Guk 'chelum labrosus' espeziea lantzen dugu», argitu du.

Gure aurrekoek jaten zituzten baina azken hamarkadetan ezjakintasunagatik baztertuta edo gutxietsita egon diren hainbat arrain mota koiznatzen ditu. «Kantauri itsasoan sekulako potentziala daukagu eta beste bide batzuk jorratu behar dira, ahaztutako arrainak erabiliz».

Garaian garaikoa. «Polita da sartzen den produktuaren arbera aritzea. Ez da fabrikara joan eta 'gaur 100.000 torloju egingo ditugu' esatea bezalako. Jatera datorrenarentzat ere interesgarria da egun batekin bestera zerbait ezberdina aurkitzea. Gaur, adibidez, ostirala denez, garaiko 7-8 arrain ezberdin daukagu», dio.

Katuarraina, arraingorria, muxumartina, meroa, antxoa, txelba, erla... Gipuzkoan edo Bizkaian, Armintza aldean, lanean aritzen diren ontzi txikitatik hornitzen dira. «Zuzenean ez, handizkako enpresa batekin aritzen naiz; bestela goizeko 04.00etan jaiki behar nuke. Badakit non eta nola harrapatu duten», azaldu du.

BIOLOGOEKIN ELKARLANA

Hamahiru urte daramatza biologoekin lanean. Mutrikuko Kardala Eskolarekin elkarlan estua du. «Akuikulturako eta akuiponiako arrainek difamazioa jasan dute, eta esan izan da ez direla onak. Niretzat horrek ez du zentzurik. Egia da garai batean agian ez zela jasagarritasuna bultzatzen, arrainez egindako pentsuak

eta antzeko elikagaiak erabiltzen zirelako. Arrainak hazi beharrean, tigreak hazten ziren! Ez zuen logikarik. Gaur egun beste sistema batzuk daude, jasagarriak. Niretzat bidea hori da. Behiak eta oiloak zer dira? Basatiak? Garrantzitsua da hainbat kontu zalantzan jartzea, jendeak hausnarketa egin dezan. Zer gertatuko da, bestela, etorkizunean? Zer egin behar dugu? Dena suntsitu?».

BIDE BERRIA

Hamahiru urtez mekaniko aritu ondoren piztu zitzaion sukaldaritzarekiko grina. «Konturatu nintzen ez zela nire ofizioa eta ez nuela bizitza osoan horretan aritu nahi, automata moduan».

Etxean sukaldean aritzen zen. Erlaxatu egiten zuela ikusita pausoa ematea erabaki zuen. «29 urterekin –inoiz ez da berandu– Aiala Eskolan hasi nintzen. Florentzian hilabete batzuk pasatu nituen eta bueltan Donostian aritu nintzen. Taberna bat hartu eta sukaldaritzaren italiarra egin nuen. Handik Zumaiako Beheko Plazara egin nuen salto. Autodidakta moduan gauza asko ikasi ditut. Nire 'zoro' ikuspuntutik esperimentazioak egiten hasi nintzen bertan».

Emitza iritsi da. «Gaur egun bederatzi patente daukat, itsas lukainkenak. Zefalopodoen hainbat zatirekin –orain arte jan edo erabili ez direnak– txorizoak, saltxitxoak... egiten ditut. Orain produkzio lanak egiten hasiko naiz European saldu ahal izateko», iragarri du Txintxillak.

Elikadura aldetik dituen abantailak azaldu dizkigu. «Gantz portzentaje baxua dute, eta egonkortailerik ez dugu erabiltzen. Beraz, nutrizioa

ANDONI TXINTXILLA

SUKALDARIA

Goi mailako gastronomiaren fokuak Hamarratz jatetxeko sukaldaria begira jarri dira. Itsasoaren jasagarritasuna helburu duten proposamen berritzaileekin dator Andoni Txintxilla.

Xole ARAMENDI ALKORTA

ri dagokionez interesgarriak dira. Eta gaur egun ez dago horrelako produkturik», argitu du sukaldariak.

Europa iparraldeko herrialdeetan eta Mediterraneo aldekoetan antzina egiten ziren halakoak. «Arrainaren proteina oinarri hartuta egiten zuten; nik dakidala, inork ez du egin nik planteatu dudana».

Bederatzi urte pasatu ditu ikertze lanetan buru-belarri. Extremadura eta Zumaiaren arteko zubi lana egin du Txintxillak. «Bereziki olagarroan zentratu naiz, Zumaia olagarroaren herria baita. Amaren partetik Extremadurakoak nituen aitona-amonak eta bertan ikusi nuen, txerribodetan, nola egiten zituzten txorizoak. Zumaiara egokitzea pentsatu nuen», azaldu du.

Etorkizuneko elikagai bezala ikusten du. «Industriara bideratu dut, baina bolumen txikiarekin hasiko naiz. Ez dut ikusten 'gourmet' izenpean, gainera. Holistikoa izan daiteke, dena bateratzen duena».

SORKUNTZAK BIZI

Nabari zaio sorkuntzak bizi duela. «Sukaldea polita da, nire pasioa da, eta gauza berriak egiteak betetzen nau; hori bai, goxoak daudenak». Bisitarien ahosabaiak zer dioen jakin behar da, lehenik. «Frogak egin eta mahaira eramaten ditut jakiak, bezeroek gustukoa duten ala ez jakiteko», dio.

Bezeroetako askok irekitzeaz dagoen terrazan itsaso aldeko bidez gozatu ahal izango dute. «30 pertsona hartzen ditugu gehienez ere jangelan, eta terrazan beste 80 inguru egon ahal izango dira», esan du. Ondoa dago baratzea ere. «120 barietate jangarri ditugu une honetan», dio. Clara Gutierrez biologo etnobotanikoak du



Gorka RUBIO | FOKU

bertako landaredia berreskuratzearen ardura. «Txerria ere badaukagu; itsasoko urarekin eta mikroorganismoekin hazten ari gara», dio. Hamarrazten ezustekorik ez da falta.

Haragia ere badu aukeran plateran, nahiz eta presentzia txikiagoa duen. «Bertako eta estatuko haragiarekin egiten dugu lan. Trazabilitateari esker badakigu non jaio, hazi eta hil diren. Bermea daukagu etikoki egokia den produktua jartzen dugula mahaian».

Bezeroen harreraz galdetu diogu. «Hasiera ez da erraza izan, kontuan hartu behar delako jatetxea kontzeptuala dela. Are gehiago, honelako auzo txiki batean. Badakigu Gipuzkoa eta Bizkaitik etorriko zaizkigula bezeroak, baita estatutik, AEBetatik edo Japoniatik ere. Hasieran harritu egiten dira, baina gero erantzun ona dute. Datozenen %50ak gure esku uzten du aukeraketa eta polita da, gugan konfiantza erakusten baitute», dio.

Hara-hona dabil sukaldean Carlos Gulin. Ibilbide luzea duen sukaldari galiziarra –azken bi hamarkadak Euskal Herrian pasatu ditu– izan du ondoan, bidelagun. Mirespenez hitz egiten du Txintxillak bere kideaz. «Biok elkarrekin jorrotutakoa da proiektua, eta ni asko ikasten ari naiz berarengandik».

Beste nor du erreferente? «Josh Nilan australiarra. Apurtzailea da hainbat zentzutan eta jakien aprobetxamenduaz

«Gaur egun bederatzi patente dauzkat, itsas lukainkenak. Zefalopodoen hainbat zatirekin –orain arte jan edo erabili ez direnak– txorizoak, saltxitxoak... egiten ditut. Orain produkzio lanak egiten hasiko naiz European saldu ahal izateko», iragarri du Txintxillak



gauzak garbi esaten ditu. Eta errespetu handia diot Aitor Arregiri ere, itsas kultura zabaltzeagatik; itsasoari lotutako pertsona da».

Beiraren atzeko sukaldera begira, apalategian, Nilan-en liburua dago. Baita Juan Mari Arzak, Gaston Acurio eta antzeko izen handienak ere.

Ahots berria iritsi da goi mailako gastronomiara. Lanerako prest da. Sukaldeko bidea hartu du, bezeroak laster datoz.



AZTARNA EKOLOGIKOA

Unai GARCIA MARTINEZ | Ingurumen Teknikaria

Karbono neutraltasuna lortzeko tranpak (II)

Parisko Akordioa sinatu zenetik enpresa handiak askok karbono neutraltasunaren erretorika barneratu dute. Badakigu lausotasunez eta hitz onez betetako diskurtso, iragarki eta txostenek euren negozio eredu kaltegarriari eustea bilatzen dutela soilik, testuinguru berri-ara egokitzea. Hala ere, aurreko artikuluan ikusi genuen bezala, egia esan dezakete neutralak direla edo izateko bidean daudela esaten dutenean, tranpak egin ditzaketelako.

Lehen tranpa aztertu genuen, zeinetan, ezer aldatu gabe, korporazio handiek eragindako kaltearen zati handiena baztertu dezaketen, emisio zuzenak bakarrik kontuan hartuta (eta zeharkako asko hegoalde globaleko herrialdeetara garraiatuta). Banku batek, adibidez, oso emisio zuzen gutxi ditu, bere instalazioetatik ez dituelako gasak zuzenean emititzen. Hala ere, horren karbono aztarna izugarria izan daiteke, aldaketa klimatikorako kaltegarriak diren sektoreetan dituen inbertsioen ekarpena kontuan hartzen badugu. Gauza bera gertatzen da zementua ekoizten duen enpre-

Sektore batzuek ezin izango dute inoiz zero emisio izan. Horregatik, trikimailu berriak asmatu dituzte negozio eredu kaltegarriari eusteko: karbono aztarnaren konpentsazioa. Ohikoa da entzutea enpresa batek edo makro ekitaldi batek eragindako kaltea orekatzeko zuhaitzak landatuko dituela. Hala ere, ez dago argi estrategia horrek, nor bere burua zurrizteko ez ezik, ingurumen onurarako ere balio ote duen. Errezeta ez da berria, dena den: kutsatzen jarraitzeko ordaintzea.

sa batekin. Kasu horretan esanguratsuak dira zuzenean fabrikako tximinetatik emititutako gasak, kontsumitutako energia elektrikoa ere bai, baina aztarnaren zati nabarmena baztertu daiteke lehengaien erauzketak eragindako isuriak kontuan hartzen ez badira. Kalkuluaren irismena aldatu besterik ez dute neutraltasunera hurbiltzeko.

2. TRANPA: KARBONO AZTARNAREN KONPENTSAZIOA

Aurreko adibideekin jarraitzeko, bankuak sektore kaltegarrietan dituen aktiboak baztertu ditzake neutraltasunerako bidean, jatorri berriztagarriko energia kontsumitu bulegoetan, baina ezin izango luke inoiz zero emisio izan, jardueraz guztiek atxikitako karbono aztarna bat dutelako. Zementua ekoizten duen enpresak are zailagoa izango luke, emisio zuzenak bakarrik kontuan

hartu arren, lehengai eta energia asko eskatzen dituelako ekoizpen prozesuak. Horregatik, beste bide bat bilatzen dute enpresa askok neutralak direla esan ahal izateko: karbono aztarnaren konpentsazioa, hain zuzen ere.

Karbono aztarnaren konpentsazioa emititu den karbono kopuru bera xurgatuko edo ekidingo duen proiektuak bultzatzean datza. Enpresek karbono kredituak erosi ditzakete, basoberritzeak, nekazaritza jasangarri egitasmoak edo ordezkoko energia iturrien inguruko ikerketak finantzatu eta, horrela, ezabatu ez dituzten isuriak orekatzeko. Enpresa batzuk legez behartuta daude kreditu horiek erostera Europako Batzordeak kontrolatutako merkatu batean (karbono intentsiboenak); gainontzeko beste organismo batzuek egiaztatutako borondatezko merkatuetan egiten dute. Erre-

zeta ez da berria, dena den: kutsatzen jarraitzeko ordaintzea.

Ohikoa da entzutea enpresa batek (edo makro-ekitaldi batek) hainbeste zuhaitz landatuko dituela bere karbono aztarna konpentsatzeko (zuzenean edo konpentsazio erakunde baten bitartez). Hala ere, proiektu horiek ez dira normalean biodibertsitatea berrezartzera zuzentzen, arbolen prezioak eta horien absortzio tasak zeresan handiagoa baitute. Zuhaitzak landatzea eta basoak berritzea ez dira gauza bera. Lurraren emankortasuna hondatzen duten eta suteak sustatzen dituzten monolaborantza eremuak sortzen dira azkenean. Gainera, ez dira landatze eta mantentze lanek eragingo dituzten emisioak kontuan hartzen, eta egoera klimatiko berriek landaketa horietan izango duten eragina ere alde batera utzi ohi da xurgatuko den karbonoa kalkulatzeko. Zer gertatuko da aldaketa klimatikoak bultzatutako sute eta lehorteek sail horiek suntsitzen badituzte? Orekatu nahi den karbonoa xurgatzeko 50 urte aurrekusi badira, nor bermatuko du modu egokian mantenduko direla? Edo saila ez dela horren aurretik salduko?

Horrez gain, badira karbono kredituak aberasteko ere erabiltzen dituzten enpresak. Kutsatzaile handi batek nahi dituen kredituak erosi ditzake, bere isuriak konpentsatu, bere burua zurrizteko eta, bide batez, sobera dituenekin espekulatzeko. Pandemian aktibitate ekonomikoa moteldu zen, eta gutxiago emititu zenez, karbono kredituen prezioak behera egin zuen. Balioa berriro handitu denez, horiek salduz aberastu daitezke enpresa transnazional handiak.

Ahalegina emisioak murriztera bideratu behar (ekoizpen eta garraio ereduetan aldaketa sakonak eginez, erregai fosilak baztertu, deforestazioa bultzatzen duten sektoreetan ez inbertituz, hornidura kateak murriztuz...), enpresa handiak status quoa mantentzeko bideak bilatzen ari dira, konponbide faltsuz jositako narratiba eraikitzen duten bitartean. Klimari egindako tranpa horiek estrategia enpresarial immobilista baten alde ezkutua baino ez dira, erregai-fosilak erretzen jarraitu nahi dutenena, garraio edo nekazaritza/elikadura eredu berri bat bilatu nahi ez dutenena, hamarkadetan politika klimatikoak oztopatzen jardun dutenen azken trikimailua.



Distopya now

**Miren
AZKARATE BADIOLA**

Influencer, likes, youtubers, followers... Badirudi inoiz baino gehiago ingelesa jakin behar dela gaur egungo mundu globalizatu honetan bizitzeko. Tira, bizitzeko baino gehiago, hitz egiteko edo entzuten duzuna ulertzeko behinik-behin. Esaldi berean horrelako bizpahiru hitz sartzen dizkidatenean galdu egiten naiz eta deskonektatu egiten dut erabat. Entzuten ditudan hitz horien inguruan ezer gutxi dakit, baina jakin badakit moda-modan daudela.

Duela egun batzuk bideo bat iritsi zitzaidan mugikorrean ditugun talde

horietako batera eta oraindik asimilatu ezinik nabil bertan ikusi nuena. Japoniako zubi baten azpian bata bestearen ondoan eserita zeuden gazte batzuk ageri ziren. Haien artean metro bateko distantzia ere ez zuten eta parean bakoitzak mugikor bat eta argia emateko foku txiki bat zituen. Off-eko ahotsak zioen *streaming* bidez ari zirela zuzenean emititzen eta kokalekua estrategikoa zela horretarako. Jende asko dagoen lekuetan ikustaldi gehiago zituztela eta ondorioz *match* edo *likes* gehiago, eta ondorioz diru gehiago lortzen zutela. Ufa!!! Nik, bai, behar izan

nuen bideo horren ikustaldi bat baino gehiago zeozer ulertzeko!

Ekuaioa da: edukia igotzeaz bizi den jendea haiengandik zenbat eta gertuago egon edo zenbat eta jende masa handiagoak bizi diren guneetan egon, berdin, diru gehiago. Edo hori ulertzen dut nik, behintzat.

Nobela distopikoen jarraitzaile sutsua naiz, izugarri gustatzen zaizkit. Baina hau gehiegizkoa da! Beldurra ematen dit eta, era berean, tamalgarrira iruditzen zait, egiari zor.

Kontua ez da ez dudala ingelesa ulertzen; uste dut ez dudala mundu hau ulertzen! •

Euskainola

**Amagoia
MUJIKA TELLERIA**


Martxa honetan aurki erdaraz hitz egingo dugu euskaraz ari garela koan», bota zuen aspaldi Lazkao Txikik. Eta egunero, belarriak esna ditudan bitartean, askotan akordatzen naiz gogoeta horrekin. Euskainola entzuten da barra-barra. Bi hizkuntzen elkarbizitza hain gertukoa izanda, ulertzekoa da nahasketa. Naturala ere bai, segur aski. Kezkatzen nauena da, binomio horretan, zein hizkuntzak hartuko duen pisu handiagoa, zeinek bozgorailu ozenagoa. Hiru esal-

ditik bat erdaraz edo hiru esalditik bat euskaraz? Eta pentsatu, euskaraz edo erdaraz? Eta amestu? Eta haserretu? Eta beldurtu? Eta maitatu?

Eusko Jaurlaritzak VII. Inkesta Soziolinguistikoa aurkeztu du. Erabilera, ezagutza, transmisioa eta jarrera, dena gorantz omen doa. Euskara gero eta gazteagoa omen da eta jendartearen euskararen aldeko jarrera gero eta aldekoagoa. Egia esan, inkestaren datu asko harrigarri bezain pozgarri gertatu zaizkit, begirada ilunxeagoaz ikusten baitut nik panorama.

Ona da euskararen alde egotea, baina ez da nahikoa. Pozgarria da euskararen ezagutza gero eta zabalagoa izatea, baina ez da nahikoa. Nik inguruan sumatzen dut euskaraz natural eta aise aritzen direnak gero eta gutxiago direla. Eta horri lotutako datua ere topatu dut inkesta soziolinguistikoa: euskaraz errazago dabilzan euskaldunen kopurua zazpi puntu jaitsi da 30 urtetan. Erdal elebidunak sei puntu igo dira.

Lazkao Txikik burua altxatuko balu, tristuraz ikusiko luke baietz, arrazoia zuela. •



Julen Alberdi, Azkoitiko Uzin Azpikoa baserrian, entrenatzeko erabiltzen duen txokoan bertan. Andoni CANELLADA | FOKU

infraganti **JULEN ALBERDI,** **«TXIKIA IV.A»**

Urte bikaina sinatu zuen iaz Julen Alberdi «Txikia IV.ak». Sherpa.ai txapelketa nagusian garaile izateaz gain, Banakako Urrezko Aizkolarien Txapelketa eta Donostiako Urrezko Kopa ere irabazi zituen. Hilabete batzuen ondoren, lortutako guztiaz mintzatu zaigu azkoitiarra, baita bere ibilbideaz eta aurrera begirako erronkez ere.

Pena da, irakurle, baina noizbait Azkoitia inguruan galduz gero ez zara inola ere Uzin Azpikoa baserrira iritsiko. Izan ere, Urrategi auzoko paraje eder honetara ailegatzeko propio gidatu beharra dago mendian gora lau bat kilometroz hor-

migoizko pista estu bezain malkartsu batean.

Bertan du prestatua Julen Alberdi «Txikia IV.a» aizkolaria (Azkoitia, 1991) entrenatzeko bere txoko berezia, ganadu artean, eguneroko zarata eta estres guztietatik urrun. Eta iaz lortu zituen emaitzak ikusita argi dago bikain asmatu zuela bere prestaketarekin.

Alberdik Sherpa.ai txapelketa nagusia, urteko hitzordu garrantzitsuena, irabazi zuen udazkenean, Eneko Otaño eta Mikel Larrañaga mendean hartuta. Norbaitek, agian, aitza ipiniko dio gogoraraziz Iker Vicente izar nagusia falta zela final hartan. Baina, aurretik, Vicenteri berari ere gailendu zitzaion Urrezko Aizkola-

rien finalean edo Donostiako Urrezko Kopan. Eta hori ez dago edonoren esku.

«Hasieran apur bat kolpetik etorri ziren emaitzak, eta berdin jarraitu nahi izan nuen lanean. Txapelketak irabazteko helburuarekin, bai, baina nire buruari presio 'extra' hori sartu gabe. Baina, azkenean, emaitzak oso onak izan ziren eta pozik bukatu nuen», onartu du apal azkoitiarrak 2022ko balantzea egitea eskatu diogunean.

Esan daiteke, nolabait, 2022an «Txikia IV.a»ren ibilbideak falta zitzaion azken koska igo zuela. Ez dakigu oraindik goia jo duen ala ez, hori denborak erakutsiko du, baina argi dago azken urteetan egin dako urrats sendoek aizkoraren punta-puntan kokatu dutela jada.

LEHENIK, IKASKETAK

Izan ere, Alberdiren kasuak ez du Vicenterenarekin antzik alde horretatik. Gipuzkoarra ez zen gazte-gazterik hasi serio aizkoran eta adin bat bazuen bide horri buru-belarri heldu zionean, nahiz eta etxean betidanik izan duten aizkora tradizioa.

«Gure aitita ibilitakoa zen, osaba zena ere bai, eta nire aita ere bai. Baina egia da nik ditudan lehen oroitzapen haientarako utzita zeukatela. Kirol zaletasuna, bai, ezagutu dut betidanik etxean, baina zuzenean beraiek aizkoran ez ditut ezagutu», azaldu digu.

Horregatik, onartu du autodidakta samarra izan dela bere ikaskuntza prozesua: «Etxean argazkiak baziren, aizkora zahar batzuk ere bai, eta etxean ni neu hasi nintzen apur bat aizkoran, denborapasa bezala. Eta 18 urterekin, inguruko gazte batzuek apus-



behin jardunez, baina txapelketei-eta begiratu gabe. Eta behin ikasketak amaitu nitueanean, orduan heldu nion serioxeago. Hirugarren mailan izena eman nuen neure burua probatzeko asmoz, ia zertarako gai nintzen ikusteko», gaineratu du.

BILAKAERA AZKARRA

Eta bilakaera oso azkarra izan zen, prestakuntza apur bat fin-tzea nahikoa izan zuelako biz-pahiru urtean lehen mailan egonkortzeko. «Lehen aldiz hirugarren mailan 2013an atera nintzen, baina ez bereziki prestatuta, eta ez nintzen finalean sartu. Gogotsu nengoen eta zer zen ikusteko balio izan zidan. 2014an ez nintzen aur-

tu-erakustaldi moduko bat egin genuen. Baina hortxe geratu zen kontua».

Dioenez, garai hartan ez zuen ikusten aizkora serio hartzeko aukera. «Banituen neure erreferentziak, noski, jarraitzen nituen aizkolari eza-gunak, baina une hartan salto handiegia ikusten nuen lehia-ketetan parte hartzeko. He-

men Azkoitian urtean erakustaldi bat egiten nuen, ez nukan erabat utzita. Etxean ere tartean behin aritzen nintzen, baina ez helburu jakin batekin. Gainera, ingeniari-tza bat ikasten hasi nintzen eta horrekin banuen nahikoa lan», gogoratu du.

«22-23 urtera arte horrela ibili nintzen, etxean noizean

keztu eta 2015ean hobeto prestatuta joan nintzen, Anjel Arrospiderekin lanean hasita, eta hor bigarren egin nuen finalean, «Arria V.a»ren (Xabier Orbegozo) atzetik. Bigarren mailara igo nintzen. 2016an Gipuzkoako Bigarren Mailako Txapelketa jokatu nuen, hor hirugarren maila ez dagoelako, eta hori irabazi eta lehen mailara igo nintzen. Udazken hartan, Euskal Herrikoan, bigarren mailakoa jokatu nuen eta bigarren egin nuen, Eneko Otañoren atzetik. Lehen mailara igo nintzen. Hirugarren maila jokatzetik lehen mailan jardutera pasatu nintzen bi urtetan», laburtu du.

Bilakaera azkarra aipatu dugu. Azkarregia, agian? «Nahikoa kolpetik etorri zitzaidan», onartu du. «Lehen mailara iritsita konturatzen zara hor zakur zahar asko daudela. Maila handiko jendea da eta diferentzia markatzea oso zaila da. Lehen koska horiek horren azkar igo ostean, pentsatzen duzu hobekuntza hori beti horrela joango dela, baina gutxien espero duzunean hurrengo urtea, agian berdina ez, okerragoa izan daiteke».

Horregatik, emaitzak distantzia apur batekin aztertzearen garrantzia nabarmendu du. «Bakarka egiten den kirola izanik, hori kudeatzen ikasi behar duzu. Zeure buruari argi utzi akatsak egin ditzakezula eta presio gutxiago sartu. Ni, adibidez, neure buruari presio dezente sartzekoa izan naiz, eta oraindik ere halakoa naiz, baina orain lasaixeago har-tzen dut kontua», dio.

Eta adibide moduan 2020an eta 2021ean izan zituen emaitza apalagoak ipini ditu. «2019an, adibidez, emaitza onak lortu nituen. Baina egia da 2020an eta 2021ean emai-



Sherpa.ai txapelketa nagusiko finalaren bi irudi. Batean, aizkora aldatzen eta bestean, Larrañaga eta Otañorekin hizketan amaitu ondoren.



tza pattalagoak izan nituela. Hor beherakada bat izan nuen. Agian konfinamenduak ere izan zuen eragina, erakustaldi eta erritmo falta hori antzeman nuelako. Lehiaketa erritmoa falta nuen. Eta 2022an erakustaldi gehiago izateak eta txapelketa gehiago jokatzeak lagundu didatela uste dut. Horrelakoei buelta ematea ez da erraza izaten, baina gero emaitza onak iristen direnean beste modu batera ikusten dira gauzak».

BAIKOR ETORKIZUNERA BEGIRA

Gorenera heltzeko prozesu horretan, ezinbestekoa da erronka eta motibazioak aurkitzen joatea, aizkora kirol garestia delako eta logistika aldetik asko eskatzen duena: egur egoiak, aizkorak, entrenatzeko lekua...

Alberdik, adibidez, argi du inguruan beste aizkolari batzuk izateak laguntzen duela, eta, bere kasuan, aipagarria da Eneko Otaño herrikidearekin eta Mikel Larrañaga azpeitiarrarekin duen harremana. «Pentsa, lehen aipatu dizudan kuadrilla arteko erronka horretan, beste taldean Mikel Larrañaga zegoen, eta gure taldean Eneko Otañoren anaia zaharra. Giro horrek asko laguntzen du. Finean, belaunal-

di berean, horrelako hiru aizkolari inguruan egokitzea oso aberasgarria da denontzat».

Aipatu dituen beste bi elementu erakargarri norbere mugak gainditzeko aukera eta kirolarien arteko giroa dira. «Egia da gastu handiak dituen kirola dela, bakarkakoa... Irudi lezake dena beltza dela, baina oso kirol polita da, esker onekoa. Helburuak betetzen dituzunean asko betetzen zaitu, zuk egindako lanari esker lortu duzulako. Eta lagunarte berezi bat ere osatzen da, Euskal Herriko txoko asko ezagutzeko aukera ematen du, askotan festa giroan ibiltzen zara...».

Herri kiroletan sumatzen den haize berria, adibidez, begi onez ikusten du. Harri-jasotzaile eskolen sorrera eta horrek erakarri dituen gazte berriak, pentatloia- eta duatloia-aren arrakasta... Hori

«Lehen koska horiek horren azkar igo ostean, pentsatzen duzu hobekuntza hori beti horrela joango dela, eta gutxien espero duzunean hurrengo urtea okerragoa izan daiteke»

«Egia da gastu handiak dituen kirola dela, bakarkakoa... Irudi lezake dena beltza dela, baina oso kirol polita da, esker onekoa. Helburuak lortutakoan asko betetzen zaitu»

Iazko Donostiako Urrezko Kopako bi argazki. Ezkerrean, Iker Vicente, Alberdiri besoa altxatzen, garaile irten ostean. Eskuinean, aitari, Txikia III.ari, eman zion besarkada sentitua. Aritz LOIOLA | FOKU

bai, oraingoz berak nahiago du aizkoran zentratu.

«Inbidia sano hori sentitzen dut. Ikustera joan eta beti hasten zara imajinatzen zu nola moldatuko zinatekeen horretan. Baina aizkorarekin bakarrik egutegia horren beteta izanda, askotan txapelketa batzuk lehenesten ibiltzeraino, horrelako beste lehiaketa garrantzitsu batera begira jartzea... Adibidez, pentatloian harri-jasotzea prestatzen hasteak nire aizkorako maila baldintzatu lukeela iruditzen zait», hausnartu du azkoitiarrak.

Aizkolariek Euskadiko Federazioarekin izandako liskarren inguruan –Ezpal elkartearen sorrera ekarri zuen–, Alberdik uste du «gure kirolari itxura berri bat emateko helburua apurka» lortzen ari direla, baina faltan botatzen du erakundearen laguntza. «Ez dakit 'boikot' hitza erabil daitekeen, baina ate asko itxi dizkigute. Oztupo ugari izan ditugu geure lana aurrera eraman ahal izateko. Esango nuke kirol mailari baino gehiago beste interes batzuei begira ari direla».

«Gure aldetik beti egon da hitz egiteko eta akordioak lortzeko jarrera, baina beraien partetik ez dugu proposamen argirik jaso», dio. Hala eta guztiz ere, argi du Euskadiko Fe-

derazioak egindako azken eskaera, elkarteko aizkolari guztiak hirugarren mailatik lehiatzen hastea, ez dela bideragarria. «Ezpal elkartean gauden 20 aizkolariok batera hirugarren mailan hasten bagara, eta urtero binaka igotzen joan behar badugu, gaur egun 16-17 urte dituzten gazteek ondorengo ia hamar urteetan ez dute aukera izango bigarren mailara igotzeko ere. Belaunaldi galdu bat izateko arriskua litzateke. Ez dakit Federazioan horretan pentsatu duten edo ez, baina buelta bat eman beharko diotela iruditzen zait», defendatu du.

Euskadiko Federazioarekin eskutik edo bananduta, aldutuko ez dena Julen Alberdiren aizkora gosea da, eta azkoitiarra jada hurrengo erronkei begira jarrita dago. «Gipuzkoako Lehen Mailako Txapelketa izango da txapelketa nagusia uda aurretik. Ekainaren hasieran izango da. Urrezko Aizkorako banakakoa eta Gipuzkoako Binakako Txapelketa ere jokatuko ditugu, baina helburu nagusi ekainekoa jarri dut. Iaz bigarren izan nintzen –Larrañagaren atzetik– eta arantza hori ateratzen saiatuko naiz». •

Asier AIESTARAN



Olatz Arregi Uriarte

Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikertzailea, UPV/EHU

ChatGPTren tripetan

Bat baino gehiago liluratu da azken asteotan ChatGPTren emaitzak ikusita, baina ez dut hemen sistemaren emaitzei buruz hitz egin nahi, baizik eta haren barnean, haren tripetan, dagoenari buruz; hau da, elkarrizketa-sistemaz edo txatbot horrek horrelako erantzun onak emateko behar duenaz.

Lau gertaera daude arrakasta horren atzean:

1. Testu eta dokumentu asko eta asko dago eskuragarri formatu elektronikoa. ChatGPTren oinarrian hizkuntza-eredua dago; alegia, hitz baten ondoren, hurrengoa zein izango den “iragartzen” duen sistema. Horretarako, testu askorekin entrenatzen da sistema, eta hortik sortutako ereduak gai da hizkuntza naturalean esango genukeen imitatzeke.

ChatGPTren oinarrian dagoen hizkuntza-eredua (GPT-3) entrenatzeko wikipedia osoa, liburu elektronikoak, webguneak... 1.000 milioi hitz baino gehiago erabili dira, guztira, eta, horri esker, kalitate oneko erantzunak ematen ditu txatbotak hizkuntza nagusietan, horietatik ikasi baitu.

2. Eskulan handia egin da hizkuntza-eredua aberastan. ChatGPT ez da hizkuntza-eredua, elkarrizketa-sistema baizik; hau da, erabiltzaileari argibideak eta erantzunak modu lagungarrian ematea helburu duen sistema. Horretarako, *Reinforcement Learning from Human Feedback (RLHF)* izeneko teknika erabili da; alegia, hizkuntza-eredua eskuz aberastu da elkarrizketak bideratzeko gaitasuna izan dezan. Helburua ez da sistemari galdera guztien erantzunak ematea, baizik eta, batzuk emanda, orokortzen eta antzeko galderari erantzunak ematen erakustea. ChatGPTren kasuan, eskuzko parte-hartze zuzena hiru fasetan egin zen:

1. Hasieran pertsona talde batek galderak eta erantzun egokiak (txatbota balira bezala) sartu zizkion sistemari.
2. Gero, txatak ematen zituen erantzun posibleak ordenatzen eta sailkatzen zituzten eskuz, erantzunen egokitasuna


eta kalitatea kontuan izanik, eta berriz entrenatu zuten sistema.

3. Azkenik, sistemaren emaitza desegokiak alboratzeko, horiek eskuz etiketatu ziren. Erantzun desegoki gisa honako hauek hartzen ziren: gorroto-mezuak, arrazistak, sexistak edo abusuak bultzatzen zituztenak. Prozesu horren ondorioz, mezu toxikoak antzemateko sistema sortu eta elkarrizketa-sisteman integratu zuten.

3. Ahaldun handiko konputagailuak, kalkulu-abiadura izugarria dutenak, erabili dira sistema entrenatzeko. Hainbeste informazio duen sistema batek ondo erantzuten ikas dezan, konputagailu sendoak behar dira. Adibidez, ChatGPT entrenatzeko, OpenAI enpresak Microsoft-i eskatu zion superkonputagailu berezi bat egitea. Konputagailu horrek

285.000 prozesadore “arrunt” baino gehiago eta 10.000 GPU ditu. GPUak datu-multzo handiekin paraleloan lan egiteko diseinaturik dauden prozesadore espezializatuak dira.

4. Teknika eta paradigma berriak erabili dira entrenamendurako. Neurona-sareak duela urte batzuk hasi ziren arrakastatsu bihurtzen, eta gaur egun adimen artifizialeko aplikazio gehienetan erabiltzen dira. Gizakion garunaren egituraren eta funtzionamenduan oinarritutako eredu matemati-




Txatbotak badu zer hobetu euskararen eta antzeko hizkuntza txikiaren kasuan.

koa da neurona-sarea; hau da, ikasketa automatikoko teknika ahaltsua. ChatGPT sortzeko InstructGPT hizkuntza-eredu hobetuaz baliatu dira, eta eredu hori 175.000 milioi parametro erabiltzen dituen neurona-sare batekin entrenatu dute.

Txatbotak asko dauka hobetzeko oraindik, eta horretan ari dira buru-belarri. Egun hauetan, esaterako, GPT-4 hizkuntza-eredua iragarri dute, zeinak, testuez gain, ahotsa, irudia edo bideoak txertatuko dituen. Baina beste arlo bati erreparatuta, are eta berdeago daude gauzak. Esate baterako, zein leku dute sistema hauetan nagusiak ez diren edo baliabide urri dituzten euskara bezalako hizkuntzek? Jarraituko du... •

BEHATXUL[]TIK

Juantxo EGAÑA



FORUEN MONUMENTUA ERAIKITZEKO LANAK

1893 eta 1894 mobilizazio, protesta eta manifestazio urteak izan ziren Hego Euskal Herrian. Horietako asko "Gernikako Arbola" abestuz amaitzen ziren eta Garesen (Nafarroa) altxamendu armatu bat egitera iritsi ziren "Vivan los Fueros" oihukatuz. Gamazadaren urteak izan ziren, eta euskal herritarrak ere hil ziren foruen alde eta Espainiako gobernuak foruen aurka emandako dekretuari aurre egiteko mobilizazioetan, Guardia Zibilak egindako kargen ondorioz. 1895ean, protesta horien oroimenez eta foruen defentsan, eta herriaren bultzadarekin, Iruñeko Sarasate pasealekuko Foruen Monumentua eraikitzen hasi ziren, urte batzuen buruan amaitu zen lana. Monumentua Manuel Martinez de Ubago arkitektoak diseinatu zuen. Irudi alegorikoak Ramon Carmona iruindarrak egin zituen. Rosa Oteizak Jose Martinez de Ubagorentzat posatu zuen. Jose Martinez de Ubagok 5,5 metroko garaiera duen brontzezko estatua diseinatu zuen, Foruen Monumentuaren goialdean ageri dena. 1903ko apirilaren 7an jarri zuten estatua hori. Egile ezezagunaren irudiak monumentuaren eraikuntzaren une bat erakusten du. Hermilio de Oloriz idazleak idatzi zituen 1905ean jarritako plaken testuak. Horietako batek honako hau dio: "Gu gaurko euskaldunok, gure aitasoen illezkorren oroipenean bildu gera emen gure legea gorde nai degula erakusteko".



GAUR8 ireki gure leihoa

